MUNGIA UDALA AYUNTAMIENTO

# MUNGIARRA

**Teknologia Barriak**
Komunikazino tresna barriak: udal web atari barriak.

**Cultura**
Películas con temática social en el festival de cine invisible.

**Construyendo Mungia**
Actuaciones para urbanizar la zona de Olalde Beresia.

## Mungia herri garbia, Guztion erronka.














# La participación ciudadana en los talleres, clave para la definición del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU)

Hiri Antolamenduko Plangintza Orokorra osatzeko prozesua abian da. Diagnostikoaren ostean, mungiarrek hiru tailerretan parte hartzeko aukera izan eben, diagnostikoaren nondik norakoak ezagutu eta bakotxaren eretxiak eta proposamenak ekarteko. Hori guztia egin ondoren, Plangintzaren behin-behineko dokumentua prestatzen dabilz orain teknikariak. Behin bukatuta eta beharrezko onarpenak jasota, herritarren parte-hartze foroetan eztabaidatuko da, behin betiko dokumentua erredaktatu baino lehenago.

Como se explicó en números anteriores de Mungiarra, el municipio se encuentra inmerso en el proceso de definición del nuevo Plan General de Ordenación Urbana. Tras una primera fase de diagnóstico, el Consejo Asesor de Planteamiento Urbanístico redactó con ayuda del Ayuntamiento un informe sobre la ordenación urbana de Mungia.

Y es que según la Ley del Suelo y Urbanismo del País Vasco de 2006 las Normas Subsidiarias deben ser reemplazadas con un PGOU.

De esta manera, y tras realizar el diagnóstico, se constituyeron y organizaron los grupos de mejora que tomarían parte en los talleres de participación ciudadana. El Ayuntamiento de Mungia adjudicó a la empresa Tandem la redacción del PGOU, equipo multidisciplinar que se está ocupando de diseñar el Plan y de gestionar las aportaciones de los mungiarras. Asimismo, desde el Ayuntamiento se hizo un llamamiento masivo para que ciudadanos de toda edad, sexo, condición o barrio se acercaran a estos foros, así como representantes de asociaciones, comercios, etc.

A lo largo del pasado verano, se organizaron tres talleres para recabar ideas para la mejora del municipio, y aportar opiniones sobre el Diagnóstico urbanístico y medioambiental. Así, el primer taller se celebró el día 7 de junio y en él se dio a conocer primeramente qué es exactamente un PGOU, para seguidamente exponer el diagnóstico del Plan General de Ordenación Urbana de Mungia que recientemente se había redactado. Además, se informó a los mungiarras asistentes de los mecanismos de participación para la ciudadanía que se pondrían en marcha. En este mismo taller, se inició el proceso participativo hablando sobre el modelo territorial.



En el segundo taller, celebrado una semana después, se incidió en tres puntos clave del diagnóstico: infraestructuras, movilidad y equipamiento. Continuando con el proceso participativo, se habló de las últimas medidas y proyectos del Ayuntamiento en lo que se refiere a infraestructuras, tales como la construcción del nuevo centro de salud, la renovación del centro escolar Legarda o varias obras y mejoras en los accesos por carretera, entre otros. En lo que se refiere a la movilidad, se habló de que uno de los objetivos del municipio debe ser el de reducir el uso del automóvil. A ello responden, por ejemplo, las múltiples actividades y talleres para la concienciación de la necesidad de usar transportes más limpios y sostenibles que se organizaron en la Semana de la Movilidad celebrada hace escasas semanas. Por último, en cuanto al equipamiento de la localidad, quedó claro que Mungia cumple con todos los estándares, pero en la práctica y teniendo en cuenta su consolidación como cabeza de comarca, sería aconsejable que se reforzara para dar un mejor y más completo servicio en el área funcional.



Para acabar con la primera remesa de talleres de participación, el 17 de julio los mungiarras se reunieron para compartir opiniones y valorar el estado de los barrios. Allí, se analizaron las necesidades reales de cada barrio y las actuaciones llevadas a cabo los últimos años para paliar dichas carencias. Los mungiarras tuvieron ocasión de exponer sus propias preocupaciones, demandas y propuestas.

Una vez celebrados los talleres, el documento del avance del plan está a día de hoy en proceso de redacción, el cual se analizará posteriormente en los foros. El diagnóstico pues se colgará en la página web, y los documentos de Avance del Plan y el del Plan (definitivo), serán expuestos al público.

El documento provisional deberá ser aprobado en Pleno en el Ayuntamiento, y tras recibir los informes obligatorios de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco (COTPV), si éstos son favorables, podrá procederse a su aprobación definitiva. Asimismo, El PGOU deberá contar con el ISA (Informe de Sostenibilidad Ambiental). Se estima que el proceso completo de diseño y aprobación del PGOU dure unos 30 meses. Por otro lado, hay que reseñar que la aprobación del PGOU debe cumplir con lo establecido en el Plan Territorial Parcial de Mungialdea, que actualmente se encuentra en fase de aprobación.



El Consistorio quiere hacer hincapié en la importancia que la participación ciudadana tiene en todo este proceso, ya que el documento resultante será clave para el futuro urbanístico y medioambiental de Mungia, y, por ende, para el día a día de los mungiarras. Por ello, desde el Ayuntamiento queremos que la información sobre todo el proceso de participación llegue a toda la ciudadanía, y para ello ha dispuesto todos los medios a su alcance.

# Reforma del puente Atxurizubi

Zubiaren oinarriak konpondu eta espaloiak hobetuko dabez; horretara, segurtasuna handitu egingo da.

El Ayuntamiento, dentro de su programa de mejoras en las infraestructuras del municipio, proyecta una obra para reparar y mejorar el puente Atxurizubi, que sacará próximamente a contratación. El objetivo es por una parte reparar las partes que se han ido deteriorando en la base y por otra mejorar la superficie para evitar resbalones u otros accidentes.

La obra contará así de dos partes: una de mantenimiento, con la que mediante chorro de arena se limpiará toda la superficie metálica, eliminando el antiguo recubrimiento y el óxido. Después, se imprimirá como protección frente a la corrosión y posteriormente recibirá dos capas de acabado de poliuretano. Además, debido al deterioro de los apoyos del puente, se llevará a cabo una reparación consistente en retirar los actuales apoyos de neopreno, y la colocación de una placa de acero inoxidable, sobre la cual se colocarán los nuevos apoyos de neopreno. Asimismo, en la calzada del puente como en la acera se instalarán juntas de dilatación.

Por otra parte, el Consistorio prevé mejorar y asegurar la zona peatonal o acera del puente. Para ello, se retirará la madera del suelo con su recubrimiento y la barandilla metálica de la actual acera. Para la formación de la nueva acera, se colocará una chapa de acero galvanizada, utilizando los soportes existentes y añadiendo sobre ella una capa





de hormigón armado de 15 cm de espesor que se impermeabilizará. Sobre ese hormigón, y como acabado de acera, se colocará baldosa granítica abujardada. Por último, se modificará la barandilla, colocando en base del perfil placa de 150 x 150 mm metálica soldada.

El presupuesto de contrata saldrá por 114.996,88 € y el plazo de ejecución de las obras será de 10 semanas.

# Renovación de la oficina del jubilado

Danontzat Alkarteak antolatzen dituan jardueretarako eta lanerako espazio zabalagoa eskaintzea erabagi dau Udalak.

En las instalaciones de la Asociación de Jubilados DANONTZAT se está llevando a cabo una reforma con el objetivo de ampliar el espacio existente entre los archivos y la oficina. Esta obra responde a una necesidad de espacio motivada por el gran abanico de actividades que ofrece y organiza Danontzat, una labor que el Consistorio pretende poner en valor.

Las obras consisten en la demolición de un tabique de separación de aproximadamente 15 cm y un falso techo de la zona, recorte del pavimento, colocación del nuevo tabique de pladur, colocación del falso techo, foseado de la indirecta, reforma del conducto de impulsión del aire, instalación y suministro de megafonía e instalaciones, modificación y traslado del detector de robo del techo, colocación de medias cañas de cantería, suministro y colocación de rodapié de madera y remates de pintura sobre paredes, techos, foseados, molduras y rodapiés.

La obra asciende a un presupuesto de 6.083,55 €.

# Olalde beresia eremuko sarbidearen urbanizazinoa abiatuko dau Udalak

El Ayuntamiento proyecta urbanizar la zona de Olalde Beresia con varias actuaciones: construir una rotonda que enlazará las calles Lauaxeta Olerkari, Karmelo Etxegarai y la salida de Olalde Beresia, que facilitará la visibilidad en el cruce existente; habilitar 19 nuevas plazas de aparcamiento; reformar la acera de Karmelo Etxegarai; Ejecutar una nueva acera en el entronque de las calles Lauaxeta Olerkari con Karmelo Etxegarai; Renovar los pasos elevados, así como la pintura y la señalización horizontal, además de colocar nuevo mobiliario urbano.



Mungiako Udalak herriko azpiegiturak eta sarbideak hobetzen jarraitzen dau. Horren barruan, Udalak, beste hainbat egitasmoren artean, Olalde Beresia deritxon eremuaren urbanizazinoa abiatzeko lizitazino-prozesua dauka hasita, hau da, aspaldiko tren-geltokiko sarbidean dagoan bidekurutzearen ingurua hobetzekoa dana, hain zuzen. Sarbide hori erabilienetakoa da herrian; izan bere, Bilbo eta beste herri askotatik herrira datozan ibilgailu asko eta asko bertatik sartzen jakuz. Ganera, uriko gune honetan hainbat etxebizitza dago eta eremu hori garrantzitsuenetarikoa da bai Mungian egiten diran erosketak kontuan izanda eta bai aisialdirako bere.

Aitatutako bidekurutze horretan, Udalak biribilgunea edo errotondea eraikiko dau, Lauaxeta Olerkari, Karmelo Etxegarai eta Olalde Beresiko urteera lotuko dituana, eta horren helburua bai autoek eta bai oinezkoek hobeto ikustea eta, ondorioz, errazago ibiltea da. Ganera, neurri honi esker zirkulazinoa bere arinduko dalakoan dagoz Udaleko Hirigintzako arduradunak. Horregaz batera, inguruaren itxura estetikoa bere hobetu egingo da herriko sarbiderik erabilienetako horretan egingo diran lanei esker.

Behin lanak amaituta, aparkatzeko 19 leku gehiago izango dira, eta hainbeste merkatari eta ostalari batzen dituan gunea izanda, balio erantsia emoten deutso. Horrez ganera, bestelako lanak bere egingo dira eremu horretan: Karmelo Etxegaraiko espaloia aldatu egingo da; Lauaxeta Olerkari eta Karmelo Etxegarai kaleen arteko lotuneko espaloia barriztatu egingo da; eta gauza bera egingo da dira ganeko pasabide, pintura eta seinale horizontaletan; horren ganera, hiri-altzari barriak jarriko dira.




Izan bere, herritarren eta ibilgailuen segurtasuna bermatzeko ezezik, bertako ekonomiaren funtzionamenturako bere ezinbestekoa da errepideak eta sarrerak behar dan moduan eraikita egotea, garbi eta egoera onean mantentzea eta denporeak aurrera egin ahala, beharrezkoak diran hobekuntzak eta lanak burutzea. Badakigu horrek guztiak gure herriko industria-guneetan, gure merkataritza, ostalaritza eta bestelako zerbitzuetan eragin zuzena daukana eta, ondorioz, Udalak ekintza zehatzak aurreikusi ditu, kasurako Olalde Beresiko hau.

Udalak hile bi eta erdiko aurreikuspena egiten dau lanok burutzeko eta, dirutara ekarrita, 233.817,93 euroko inbertsinoa egingo dau.

# Mungia asume el compromiso de mejorar la eficiencia energética y utilizar fuentes de energía renovable

Pacto de los Alcaldes y Alcaldesas
Por una energía sostenible local

Udalak "Alkateen Ituna" sinatu eban igaz. Zer da "Alkateen Ituna"? Europako udal arduradunek ingurugiroa eta energia iraunkorren alde hartutako konpromisoa: 2020rako $CO_2$ emisioak %20 gitxitzea, eraginkortasun energetikoa %20 handitzea eta eskaera energetikoaren %20 energia barriztagarriaren bidez asetzea. Diagnostikoa aurkeztuta eta mungiarren eretxiak eta proposamenak jasota, Planaren idazketa-lanetan dabilz orain teknikariak. Testua amaitu, adostu eta Osoko Bilkuran onartu ostean, Europako Batzordeari aurkeztuko jako Plana, onarpena emon deion. Plan horretan agertzen diran neurriak Udalak eta, batez bere, herritarrek abiatu beharko dabez, beti bere, Udalaren laguntzinoagaz.

El Ayuntamiento de Mungia firmó en 2012 el Pacto de los Alcaldes y Alcaldesas, un importante movimiento europeo en el que participan las autoridades locales y regionales que han asumido el compromiso voluntario de mejorar la eficiencia energética y utilizar fuentes de energía renovable en sus territorios.

El Pacto establece un triple objetivo que cada municipio firmante debe conseguir de aquí al año 2020: Reducir las emisiones de $CO_2$ en un 20%; Aumentar la eficiencia energética (obtener los mejores resultados con los menos recursos posibles) en un 20% y cubrir el 20% de su demanda energética con energías renovables. Así, el Consistorio ha adquirido el compromiso de elaborar un Plan de Acción de Energía Sostenible (PAES) para la consecución de dichos objetivos.

En el proceso de elaboración del Plan de Mungia, el Consistorio realizó un diagnóstico del consumo energético del municipio y lo presentó el pasado 24 de junio en el primero de los tres talleres de participación ciudadana que se celebraron los meses de junio, julio y septiembre del presente año. En dichos foros, primeramente se explicó en qué consiste el PAES y se expusieron los resultados del diagnóstico, tras lo cual se recogieron las opiniones y propuestas de la ciudadanía.

En este diagnóstico se desglosaron los consumos de energía de los diferentes sectores y actividades, destacando el de los vehículos, que supone aproximadamente la mitad del total. Le siguen en importancia los consumos de electricidad del sector residencial y del sector servicios, que suponen cada uno en torno al 15%. Junto con esto destacar que los consumos energéticos asociados a las actividades del Ayuntamiento no llegan al 4%. Todo ello nos da una idea de la importancia que tiene la implicación de la ciudadanía para la consecución de los objetivos de reducción de consumos energéticos y por tanto de emisiones, que hemos adoptado con la adhesión al Pacto de Alcaldes y Alcaldesas.

Actualmente se está ultimando la definición de las actuaciones que se van a recoger en el PAES, que se aprobará en Pleno y se remitirá a la Comisión Europea para su aprobación final. Una vez se apruebe definitivamente, el Plan quedará expuesto en la página web municipal y se difundirá para que todos los mungiarras con el Ayuntamiento en cabeza como ejemplo nos acojamos al Plan y pongamos en marcha las actuaciones, cuyo fin último es favorecer la sostenibilidad, el medio ambiente, el ahorro energético y el ahorro económico que lleva implícito.



# La calidad del aire en Mungia es buena

Egindako neurketen arabera, Mungiako airearen kalidadea sano ona da orokorrean.

El Ayuntamiento de Mungia solicitó la colocación una de las estaciones móviles de medición de calidad del aire de las que dispone el servicio Calidad del Aire de la Consejería de Medio Ambiente del Gobierno Vasco para medir la calidad del aire en el núcleo urbano del municipio. La ubicación seleccionada fue el aparcamiento de la estación en la calle Lauaxeta, y se recogieron datos durante 109 días repartidos en el último cuatrimestre de 2012 y enero de 2013.

A partir de los contaminantes analizados (Sox, NO2, PM10, CO, O3) y en base a la legislación vigente se define la calidad del aire para cada día, clasificándola en: buena, admisible, moderada, mala, muy mala y peligrosa. La valoración fue muy positiva, ya que de los 109 días de recogida de datos, en 104 la calidad del aire fue buena. Respecto a los 5 días restantes, la calidad fue admisible, motivados sobre todo por el Dióxido de Nitrógeno (NO2) –relacionado con el transporte- como de Ozono troposférico (O3) –habitual en días calurosos, como fue el caso-.

# Bandera berdearen arloko sari guztiak jaso ditu Mungiak

Una vez más Mungia ha demostrado su compromiso con el medio ambiente y la sostenibilidad.

Pasa dan bagilean Mungiako Udalak Bandera Berdea-Herri Jasangarria saria jaso eban sariketa horren XII. edizinoan. Sari hori Erabiltzaile eta Kontsumitzaile Independienteen Federazioak (FUCI) emoten dau, udalek ingurumen, kontsumo eta iraunkortasunaren arloetan egindako esfortzuak saritzeko. Sariok ondoko 5 modalidade edo kategorietan banatzen dira: 1.- Hondakinak, Garbitasuna eta Lorezaintza; 2.- Ingurumenagazko Konpromisoa; 3.- Uraren Kudeaketa; 4.-Ingurumen-heziketa eta Herritarren Partehartzea eta, azkenik, 5.- Kontsumo Energetikoa eta Kutsadura.

Mungiak, atzera bere bost maila horreetan egindako ahalegina aitortzea lortu dau. Sariok urte birik behin emoten dira eta gure herriak akabuko 6 edizinoetan hartu dau parte. Danetan lortu dau ingurumenaren eta iraunkortasunaren alde egindako lana aintzat hartzea eta lan hori saritzea.

# Eskolako agenda 21 proiektuan aurten klima-aldaketa landuko dabe

Los escolares de Bentades, Laukariz, IES-Mungia y Larramendi trabajan el cambio climático dentro de la Agenda escolar 21.

Udalak hamar ikasturte daroaz Eskolako Agenda 21eko proiektua lantzen, ikastetxeetan iraunkortasunaren aldeko heziketa bultzatzen, zeregin horretan irakasleak eta gurasoak inplikatuta. Ikasturte bakotxean gai bat aukeratzen da eskolan lantzeko. Aurten “klima- aldaketa” hautatu dabe eta eskolan eta herri mailan egingo diran ekintzen bidez familiartean bere eragin gura da. Hori dala eta, eskoletan hainbat lan daukie arlo honetan: diagnostiko bat egiten dabe gaiagaz lotuta eta, lortutako ondorioak kontuan hartuta, ekintza plan bat diseinatzen dabe indikatzaile horreen balioak hobetzeko.

Mungian lau dira aurten EA21ean parte hartuko daben eskolak: Bentades, Laukariz, IES-Mungia eta Larramendi. Udalak antolatutako ekintzen artean, kasurako, ondokoak aitatu geinkez: irailaren 24an egindako “Oinez-busa”; Erreka-eguna; Garbigunera bisita; biologo aditu batek lagunduta gure lorak eta animaliak ezagutzeko lana; HUA/EDARera bisita; harrapakarien mundua ezagutzeko proiektua; paper birziklatuaren inguruko tailerrak eta beste hainbat eta hainbat jarduera.

# Eskolara bidea, Oinez Busean

Más de 1000 escolares realizaron el camino a sus respectivas escuelas a pie en favor de la movilidad.

Aurtengo irailaren 24an bere Oinez Busa antolatu da Mugikortasunaren Astearen barruan, Mungiako eskola guztiek hartu eben parte eguneko jardueretan. Ingurumenari horren kalte handia egiten deutsien garraiobideak alde batera itxi, eta herriko ikasle guztiek, egunero gorputza mobitzea zein garrantzitsua dan txiker-txikerretatik ikasi daien, ohiko ibilpide laburrak kotxea erabili barik egin ahal dirala ikusi eben modu atsegin eta erosoan.

Ikasleak goizeko 9:30ean hasi ziran heltzen Matxin Plazara. Guztira, 5 eta 12urte bitarteko 1025 ikasle bertaratu ziran. Armozu osasuntsu bana eskaini ostean, Izaskun Uriagereka alkateak kirola egitea eta oinez edo bizikletaz ibiltea ze onuragarria dan azaldu eutsen. Gero, Andui Mendigozale Taldearen laguntzagaz, ikasleek eskolarako bidea hartu eben, lau ibilpide desbardin osatu ziran, eskola bakotxerako bat: Bentades, Laukariz, Larramendi eta Legardarakoa.

# XIV Feria de Agricultura Ecológica

Azokan bertoko produktu ekologikoak dastatu eta erosteko aukerea egon zan; horren ganera, tailerrak, zozketak eta beste hainbat jarduera bere antolatu ziran.

El pasado 28 de septiembre celebramos la XIV edición de la Feria de Agricultura Ecológica que anualmente se organiza en Mungia. La feria, que se organiza junto con Ekolur Asociación de Agricultura Ecológica de Bizkaia, tiene como objetivo, además de ofrecer un espacio de venta a los productores ecológicos, la divulgación de este tipo de agricultura como sistema productivo sostenible y que poco a poco está ganado cuota tanto a nivel de producción como de consumo en nuestro entorno.

Así, el abanico de los productos ecológicos expuestos y a la venta fue muy diverso: frutas, hortalizas, queso de oveja, cabra y vaca, mermeladas, pan y pasteles, vino, aceite, conservas, embutidos, miel, entre otros. Asimismo, se realizaron talleres y sorteos de productos ecológicos, y los visitantes, de la mano de Ekolur, pudieron informarse sobre las garantías y cualidades que ofrecen estos alimentos, así como de los controles que se realiza en su certificación.

# Auto Bako Eguna-2013

El Día Sin Mi Coche ofreció la posibilidad de conocer otros medios de transporte más limpios como la bicicleta o el coche eléctrico.

Mungiarrek Auto Bako Egunean bai umeentzat eta bai helduentzat antolatu ziran jardueren bidez ikasteko eta gozatzeko aukera aparta izan eben; horrez ganera, garraiobide garbiagoen alde egin beharraz bere kontzientzia hartu eben.

Izan bere, Matxin Plaza eta Euskal Pizkundea bitarteko eremuan antolatu ziran ekintzen bidez hainbat eta hainbat informazino eta jarduera eskaini zan egunaren barruan: Kotxe elektrikoen inguruko informazino-puntua, bizikleta-gymkhana, bizikletak konpontzeko tailerra, skatea, bizikleta eta kotxe elektrikoen erakusketa, horreek guztiak erabilteko aukerea eta abar luze bat.

# Mungian Oinez

Aparkaleku handietatik abiatuta uriguneko edozein puntutarainoko bidea egiteko, 10 minutu behar dira, asko jota.

Coincidiendo con el Día Sin Mi Coche y para animar a todos a desplazarnos por Mungia de una manera más sostenible (a pie, en bicicleta,...) se organizó junto a Andui Mendigozale Taldea un taller llamado Mungian Oinez.

La actividad consistió en medir el tiempo que se necesita para recorrer diferentes recorridos a pie por Mungia, con el objetivo de concienciar a la ciudadanía de que la mejor forma de moverse dentro del núcleo urbano es a pie.

Como conclusión podemos afirmar que en menos de 10 minutos se puede llegar a cualquier punto del núcleo urbano desde los aparcamientos grandes del municipio, o que en menos de 20 minutos se puede cubrir la distancia que separa los puntos mas alejados entre sí.

Próximamente se colgarán en la web municipal los recorridos y resultados obtenidos, e invitamos desde estas líneas a todos los mungiarras a crear su propio recorrido y enviar los resultados a: **agendalocal@mungia.org.**

# Doako aparkamendu mugatua zabaldu egin da Mungian

Durante el 2013 se han ampliado las plazas de aparcamiento rotatorio y gratuito que venían funcionando desde la implantación del sistema en marzo del 2008. Así, este año, y tras varias reuniones con los vecinos de cada zona para explicar los motivos de la instauración del sistema y recoger aportaciones, las zonas de estacionamiento regulado, rotatorio y gratuito de Mungia quedan de la siguiente manera: zonas 1 y 2 (identificadas por el color azul de sus líneas, en la calle Alkartasuna, Bentades y Trobika y en la calle Aita Elorriaga desde el nº2 al 20), aparcamiento limitado a una hora; zonas 3 y 4 (color verde, 25 plazas del aparcamiento Olalde Etxetaldea y 32 del aparcamiento Lauxeta Olerkari), con límite de dos horas de duración.



2008tik hona Mungiako kale batzuetan indarrean daukagun doako aparkamendu mugatuen leku kopurua handitu egin da 2013an. 2011ko abenduan aparkamenduen egoerearen azterketa eta berrikusketa egin eta gero, sistema hori herriko beste zonalde batzuetan ezarteko beharra ikusi zan, hain zuzen bere, leku horreetako ibilgailuen trafikoa arindu eta aparkateko behar dan denporea laburtzeko. Ingeniari-talde batek egindako ikerketaz aparte, Udalak batzarrak antolatu ditu aparketako arazo gehien daukiezan eremuetako herritarrakaz.

Bide horretan, 2012an foro bat egin zan doako aparkamendu mugatuen eremua aldatu beharra egoala azaltzeko eta guztien eretxiak jasoteko. Bien bitartean, Aita Elorriaga kalean lanak egiten hasi ziran, Sabino Arana eta Mastibarrena kaleen tartean. Horren ostean, Udalak batzarra egin eban 2013ko maiatzean Aita Elorrigako bizilagunakaz, hain zuzen bere kale horretarako lanen bigarren fasearen ganeko informazinoa emoteko eta aparkamenduaren erregulazioaren ganeko zehaztasunak azaltzeko. Foroetan jasotakoari jarraituta, bagilaren 10etik aurrera, kale horreetako 77 aparkalekutatik, denpora mugatuko doako 46 aparkaleku ezarri ziran kale horrexetako 2. zenbakitik 20.era doan tartean; eta horixe da Aita Elorriaga kalean ezarri dan doako aparkamendu mugatuaren 2. zonalde edo eremua.

Sasoi berean, bagilean, Lauaxeta Olerkari kale-inguruko herritarrei gonbidapena luzatu jaken eremu horretan bere sistema hori ezarri beharra egoala azaltzeko. Azkenean, garagarrilaren 11n, aspaldiko tren geltokiko, hau da, "Estazinoko" aparkalekuak dagozan 111 lekuetatik 32 aparkamendu mugatukoak izatera pasatu ziran. Garagarrilaren 15ean, barriz, Olalde etxetaldean dagoan aparkamenduan bere sistema hori ezarteko batzarra egin zan bertako bizilagunakaz. Orduan, hile bereko 22an, eremu horretan bere martxan jarri zan aparkamendu mugatuaren sistema, eta 91 aparkalekuetatik 25 leku mugatu egin ziran egun horretatik aurrera. Aparkamendu-sistema hori zabalduta, arindu egiten dira aparkatzeak sortzen dituan arazoak, batez bere merkataritza-zerbiztuak zabalik dagozan ordutegian. Ganera, herriaren barruko ibilgailuen trafikoa bere murriztea lortzen da horri esker.

Gaur egun, orduan, Mungian doako aparkamendu mugatuko sistema hori lau eremutan dago ezarrita, trafiko densidade handiena daukien guneetan hain zuzen bere. Horreetako bitan denpora-muga ordubetekoa da eta kolore urdinagaz dagoz zehaztuta edo identifikatuta: 1 zonaldea, hau da, Alkartasuna, Trobika eta Bentades kalea: eta 2 zonaldea, Aita Elorriga kaleko 2.etik 20.era doan tartea.

3. eta 4. eremuak, barriz, kolore berdez identifikau leitekez eta aparketako denpora-muga ordu bikoa da: Olalde Etxetaldeko eremuko 25 leku eta Lauaxeta Olerkariko aparkalekuko 32 leku.

Eremu guztietan dago ordutegi bera: 9.00etatik 13.30era eta 16.00etatik 20.00etara. Zapatuetan, 9.00etatik 13.30era.

# Inicio de curso en las nuevas instalaciones del CCPI

Aurten Mungialdeko Lanbide Hastapeneko Zentro barria estreinatu dabe Belako Elkartegian egokitu diran instalazinoetan. Udalak hezkuntzaren eta gazteen aldeko apustua egin dau, gaur egun dagozan prestakuntza-beharrizanak beteteko tresna egokiak herritarren eskura jarrita.



El pasado 27 de junio tuvo lugar el acto de inauguración de los nuevos locales del Centro de Cualificación Profesional Inicial. Con el fin de mejorar la calidad formativa y proporcionar unas instalaciones más acordes con las necesidades formativas, el Ayuntamiento tras la firma del Convenio con Azpiegitura, por el cual el alumnado del Centro de Cualificación Profesional Inicial (CCPI) podrían trasladarse a los módulos D-22 y D-23 de Belako II Elkartegia procedio a acondicionar los dos módulos proporcionando así un mejor servicio al alumnado.

Y es que desde que se implantara en el año 2000, el centro ha sufrido varios cambios en su ubicación. En sus inicios, el CIP Mungialde estaba ubicado en los locales de Olalde bajo la tutela del Consorcio Mungialde de Servicios Sociales. Transcurridos dos cursos, se trasladó al edificio del Pabellón de Obras del Ayuntamiento, situado junto al recinto ferial, donde ha permanecido hasta hace poco. En el 2003, el centro pasó a integrarse dentro de la estructura de Mungialdeko Behargintza, en la que permanece hasta la actualidad. Con el fin de ir adecuándose a las crecientes necesidades y mejorar la calidad formativa, desde el Consistorio se apostó por habilitar unas nuevas instalaciones, que son las que este curso se estrenan. El nuevo centro cuenta con una superficie útil de 761,19 m2 y en él se impartirán cursos de Auxiliar de Peluquería, Cocina y Servicio, Calefacción y Agua Caliente Sanitaria y Operario de Reparación de Vehículos. Con las nuevas instalaciones podrán disponer de espacios más amplios y con mejores infraestructuras. Se van a centralizar todos los programas de formación en la misma ubicación y se van a adaptar las instalaciones a los requerimientos de los programas de formación que se van a impartir.

De cualquier manera, cada año lectivo se alternan las especialidades ofertadas para el primer curso con el fin de no saturar el mercado laboral. Y es que el Centro de Cualificación Profesional Inicial ofrece una salida educativa a todos aquellos jóvenes de entre 16 y 18 años que por diversos motivos no continúan en la enseñanza secundaria obligatoria. El perfil de los alumnos que llega al centro sin embargo, es muy diverso, por lo que realizan pruebas de nivel y las sesiones se personalizan, con material individualizado que adaptan a cada alumno. Los cursos tienen dos años de duración, e incluyen prácticas en empresas durante el segundo curso. Además, se ofrece también la posibilidad de prepararse para la obtención del título de ESO.

El objetivo principal es iniciarles en una profesión, pero también crearles unos hábitos que podrían resumirse en: disciplina, respeto, puntualidad, asistencia y esfuerzo personal. Tras realizar las prácticas, pueden tomar la profesión como suya o acceder a un ciclo de grado medio, para lo cual es necesario tener el graduado en ESO. Es por ello que se ofrece también la posibilidad de prepararse para la obtención del graduado, con exámenes en el propio centro.

# Los alumnos del CCPI de Mungialdea recibieron sus Certificados de Cualificación Inicial Profesional

Bide horretatik, pasa dan astean LHPZko ikasleek bere Kualifikazio Profesionalaren Ziurtagiriak jaso ebezan gure herriko alkatearen eskutik; ekitaldian senitartekoak, lagunak eta irakasleak batu ziran, baita Foru Aldundiko eta eskualdeko hainbat zerbitzutako arduradunak bere.

El 2 de octubre se celebró el acto de entrega de diplomas a las dos últimas promociones de Centro de Cualificación Inicial Profesional de Mungia. El acto congregó a las 19:00 de la tarde en Mugire Txokoa a compañeros, amigos, familiares y profesores que no quisieron perderse un día tan señalado. Igualmente tanto por parte del Departamento de Educación como por parte del Ayuntamiento y Mungialdeko Behargintza quisieron estar presentes y felicitar personalmente a cada uno de éstos jóvenes.

Además del diploma se entregó a los alumnos un DVD con un reportaje fotográfico de su paso por el centro. Con una media de cuarenta jóvenes por curso, este centro ha formado desde sus inicios a alumnos tanto de Mungia como del resto de la Comarca así como de otras poblaciones cercanas: Sopelana, Loiu, Derio, etcétera...

Tras la presentación del evento por parte de responsables de PCPI, Educación y el Ayuntamiento se procedió a la entrega de un total de 25 diplomas repartidos entre las dos promociones: de la promoción del curso 2011/12 obtuvieron el diploma 13 chicos y chicas; 6 de los diplomas correspondieron a la especialidad de Calefacción y Agua Caliente Sanitaria y a 7 de la especialidad de Cocina y Servicio. De los 12 que finalizaron sus estudios en el año 2013, 6 obtuvieron el diploma para la especialidad de Auxiliar de Peluquería y otros 6 para la especialidad de Operario de Reparación de Vehículos.

Para finalizar el acto el alumnado que ha iniciado este año el segundo curso en la especialidad de Cocina y Servicio se encargó de preparar y servir, demostrando su buen hacer, el aperitivo ofrecido tras la entrega de los diplomas.



# Mungialdeko Behargintzak enpresen lehiakortasuna sendotu gura dau

Mungialdeko Behargintza pretende mejorar la competitividad de las empresas de la comarca, y para ello, entre otras muchas medidas, realizó un análisis para definir los aspectos que obstaculizan el desarrollo empresarial y las posibles acciones de mejora. Así, puso en marcha 4 líneas de acción y sus correspondientes grupos de trabajo, los cuales han llevado a cabo acciones concretas como la creación de un sistema documental para la implantación de gestión de calidad, entre otros.

Mungialdeko Behargintzaren (MU) helburuetako bat enpresen lehiakortasuna indartzea da, eta helburu hori lortzeko asmoz, akabuko urteotan Enpresa Garapenerako Euskal Agentziagaz (SPRI) batera "Compite" Programa garatzen dau erakunde horrek.

Programa honetan Mungiako 103 enpresak hartzen dabe parte: eraikuntza industriak, transformazinokoak eta lan produktiboak egiten dabezanak; aurreko horreei zerbitzu teknikoa eskaintzen deutseenak; informazino eta komunikazinoaren gizarteari lotutakoak eta handizkako merkataritzakoak.

2012an MUk dinamizatutako jardunaldietan enpresen garapenerako oztopo nagusiak zeintzuk diran identifikatzen eta sailkatzen ahalegindu ziran, eta traba horreek gainditzeko burutu leitekezan ekintzak proposatu ebezan bertoko enpresen laguntzagaz. Horren ostean, lau lan-ildo definidu ziran eta eurok lantzeko lan-talde bana osatu zan: Barne-kudeaketa, Kalidadea, Komertzializazioa eta Alkarlanerako sareak sortzea eta sendotzea. Lan-talde bakotxa apiriletik garagarrilera bitartean ibili zan bere gaia lantzen eta proposamenak aztertzen.

Lan horrek sano emaitza onak izan ditu. Hona hemen alkarlanean abiatutako egitasmo nagusiak: lehiakideen jokabideen ganeko analisia; kalidadearen kudeaketa ezarteko sistema dokumentalaren egiturak zehaztea; bezeroen segmentazinoa; ezagueraren inguruko hausnarketa; eta herriko enpresa-katalogoa.

Bestalde, jardunaldi teknikoak antolatu dira: "Gure lehiakortasuna baldintzatzen daben faktoreak" eta "Gure presentzia sarean" izenburupean. Horretaz ganera, industrialdeetako seinalizazinoa bere hobetu egin da.



# Formación y autoempleo como receta anticrisis

Mungialdeko Enplegu Planaren bidez, lan-merkatuan sartzeko arazo handiak daukiezan herritarrei bideratutako 6 prestakuntza-jarduera egin dira. Eurotan parte hartu dabenetako 13 lagun lanean dabilz dagoeneko. Beste alde batetik, Behargintzaren laguntzagaz 27 negozio barri zabaldu dira eta beste 12 zabaltzeko bidean dira.

Durante el año 2013 se han puesto en marcha una serie de acciones dentro de las cuales la formación especializada ha tenido gran importancia dentro del Plan de Empleo de Mungialdea. El objetivo es reducir el desempleo en aquellos colectivos especialmente desfavorecidos, además de mejorar y adecuar la cualificación de las personas desempleadas y demandantes de empleo.

Con el apoyo de Lanbide-SVE se han desarrollado 6 acciones formativas en las que han participado del orden de 73 personas desempleadas de la comarca, de las cuales a día de hoy 13 ya han conseguido insertarse en el mercado laboral.

El Plan de Empleo de Mungialdea también recoge como uno de sus ejes de acción el impulso del autoempleo y la creación de empresas, y en 2013 ha recepcionado 85 iniciativas empresariales a partir de las cuales 27 nuevos negocios han visto ya la luz. A su vez, hay doce iniciativas empresariales en fase de estudio con ocho aperturas previstas para los próximos meses.

Asimismo, 38 usuarios/as interesados en crear su propio negocio han participado en acciones formativas con el objetivo de suplir déficits en materia de gestión empresarial, cuya impartición ha contado con la financiación del Departamento de Promoción Económica de Diputación Foral de Bizkaia.

# Langabetuentzako ikastaro eta tailerrak

Behargintza organiza talleres y cursos para desempleados de cara al último trimestre del año.

Mungialdeko Behargintzaren Aholkularitza arloak langabetuentzako prestakuntza-ekintzak antolatu ditu aurtengo akabuko hiruhilekoari begira. Hona hemen ikastaroen zehaztasunak: **Lan Arriskuen Prebentzinorako ikastaroa** (60 ordukoa); eraikuntzan esperientzia daukien 25 langabetuk hartu ahal izango dabe parte bertan. Ikastaro hori zemendiaren 4tik 19ra bitartean eskainiko da, goizez 9.15etik 14.15era, EPAk dituan lokaletan (Aita Elorriaga, 39). Interesik izan ezkero, Mungialdeko Behargintzara jo behar da urriaren 28a baino lehen.

Bestetik, **Kontabilidade Sistema Informatizauaren Kontrolerako ikastaroa** (60 ordukoa) antolatuko da; parte-hartzaileek profesionaltasun ziurtagiria lortu ahal izango dabe horren bidez. Kursoa urriaren 28tik zemendiaren 15era eskainiko da, goizeko 9.00etatik 13.30era, Mungialdeko Behargintzaren egoitzan bertan. Izena emoteko, beharrezkoa da Mungialdeko Behargintzara joatea urriaren 23a baino lehen.



Ganera, beste hainbat talde-dinamika edo tailer bere jarriko dira langabetuen eskura, bai goizez eta bai arratsaldez, lan-merkaturatzea errazteko helburua daukienak: Lan-alkarrizketarako prestaketa; Talde-dinamikak; Lanbide tresna informatikoa eta webgunea: Nire Lanbidenet; Agente enplegu-emole publikoak: Lanbide, Sepe eta Behargintza Sarea; Lan Bilaketa Aktiboa; Curriculuma sortu eta hobetzea; Norberaren enpresa sortu aurretik jakin beharrekoak; Lanerako ohitura sortu edo barriztatzeko tailerra eta Gaitasun sozialak lantzeko tailerra.



# Concurso de escaparates

Mungiako Merkatari eta Ostalarien Alkarteak, Udalagaz alkarlanean, abenduaren 14an ospatuko dan Merkataritzaren Galaren barruan, Erakusleihoen Txapelketaren sariak banatuko dauz.

Con el fin de promover el desarrollo comercial de nuestro municipio y aprovechando que para Navidad los escaparates se llenan de luz y visten nuestras calles, como en ediciones anteriores el ayuntamiento colaborará con la Asociación de Comerciantes y Hosteleros de Mungia en la organización de la Gala de premios del Concurso de Escaparates de Mungia. Este año, como novedad, la gala será abierta al público y se celebrará el dia 14 de diciembre en Andra Mari. Además de los premios habrá sorteos y actuaciones. El Ayuntamiento asimismo, colabora con la Cámara de Comercio de Bilbao en el Concurso de Escaparates de Bizkaia.

## TALLER DE PAQUETERÍA

Por otra parte, se va ha realizar un curso de paquetería de 10 horas dirigido a comerciantes y a encargados de paquetería de establecimientos comerciales de Mungia. El curso será del 11al 15 de noviembre en Mungialdeko Behargintza. El objetivo es presentar de cara a navidad, las nuevas tendencias de materiales, formas y tipos de empaquetado además de diseñar una paquetería eficaz para cada comercio, teniendo en cuenta las características físicas del producto, estética, estilo e imagen que se quiere transmitir. Como en años anteriores, se ofrecerá a cada comercio tutorías personalizadas de escaparatismo de forma que los comercios de Mungia presenten su mejor imagen.



# Mungiako txorizoa eta buzkantza, Algusto Azokan

El Ayuntamiento de Mungia, en su apuesta por los productos propios de calidad y como municipio estandarte que es del slow food, ha participado un año más en la feria Algusto que se organizó en BEC el 4, 5 y 6 de octubre para promocionar la morcilla y el chorizo de la localidad. Agradecer desde estas líneas el esfuerzo realizado por parte de las carnicerías participantes en respuesta a la implicación del Consistorio por participar de este evento internacional.

Mungiako Udalak aurten bere parte hartu dau urriaren 4, 5 eta 6an BECen antolatu dan Algusto azokan. Ekimen horren bidez bertoko produktuak bultzatzeko apustua egiten dauela erakutsi gura izan dau; hain zuzen bere, Mungiako txorizoa eta buzkantza.

Urteotan egindako lanaren ondorioz, "Mungiako taloa" nazioartean slow food produktuen baluarte izendatu eben eta azpimarratzekoa da azoka horretan Mungiako Udalak beti izaten dauela aparteko stand bat jarrita, Mungiako Taloa babestu beharreko produktutzat hartzen dalako. Mungiako stand horretan produktuok dastatu eta erosteko erea egon zan azokan. Bide batez, eta horri lotuta, Mungiako Udalak eskerrak emon gura deutsez honetan parte hartu eben herriko harategiei (Morga, Basilio, Legarreta, Ortzipe, Olazar, Rafa eta Zubiaga), produktuak doan dastatzeko aukera eskaini zalako eta Udalak bertoko jeneroen alde stand bat iminteko egindako esfortzuari modu ezin hobean erantzun jakolako.

Horren ganera, aitatu beharrekoa da bertan antolatu zan Slow Food Euskadiko Nazioarteko 2. Txapela, hau da, txokoei zuzendutako tortilla lehiaketa. Bizkaiko eta Arabakoek egindako 24 tortilla aurkeztu ziran eta Mungiakoak lotu ziran oraingoan bere nagusi, izan bere, plazer handia izan zan bai epaimahaiko kideentzat eta bai beste parte-hartzaile batzuentzat bere tortilla horreek dastatu ahal izatea.

Udalak kalidadeko bertoko produktuen alde lan egiteko helburuagaz jarraituko dau, uste sendoa daukalako horreexek dirala gure izakerea, gure identidadea eta gure bizimoduaren ardatzetako bat osatzen dabenak. Ondo daki-eta bide horretatik jarraitu behar dauela, hau da, globalizatutako mundu honetan geurearen alde egiteko espirituagaz aurrera egiten.



# Apoyando la gastronomía local

Mungiako Udalak, Landa Garapenerako Jata-Ondo Alkarteagaz batera, Uribeko Produktu Gastronomikoaren Kluba sustatzen dau. Gaur egunean Mungiak 12 parte-hartzaile ditu Klubean, turismo gastronomikoa eta inguruko enoturismoa indartzeko helburua daukan proiektuan. Mungialdeko hainbat enpresa eta agente turistiko "Euskadi Gastronomika" marka barriagaz saritu dabez, hau da, produktu, zerbitzu eta establezimenduen kalidadea bermatzen dauen ziurtagiria.

El Ayuntamiento de Mungia como socio de la Agencia de Desarrollo Rural Jata-Ondo participa y apoya la puesta en marcha del Club de Producto Gastronómico de Uribe, iniciativa de la Agencia Vasca de Turismo, Sociedad del Gobierno Vasco y puesta en marcha por la ADR Jata-Ondo. Hasta el momento, en Mungia se han adherido 12 establecimientos al Club, cuyo objetivo es trabajar el turismo gastronómico y el enoturismo en la zona y promocionar la riqueza de nuestra gastronomía a través de la cooperación público-privada.

Tras un año de andadura, un total de 77 servicios diferentes entre establecimientos, empresas y agentes turísticos de la comarca han sido distinguidos con la nueva marca Euskadi Gastronomika, que les distingue como establecimientos pertenecientes al club, vinculados a la gastronomía vasca y al turismo gastronómico y que garantizan la calidad tanto del producto, del servicio como del propio establecimiento.

Las empresas que deseen incorporarse a esta marca en Uribe deberán ponerse en contacto con la ADR Jata-Ondo (946156612 – **jataondo@jataondo.org**)

El programa completo se puede descargar en el portal web comarcal **www.uribe.eu**. Además, se puede solicitar por mail a **jataondo@jataondo.org** y por teléfono al 946156612 (8:00-15:00).

# El Ayuntamiento y Behargintza, más cerca




Mungiako Udalaren eta Mungialdeko Behargintzaren webguneak barriztu egin dira, batetik, 2.0 teknologiara egokitzeko, eta, bestetik, eskuragarritasun estandar guztiak beteten dabezan plataforma barriak herritarren eskura jartzeko. Ekonomiaren sustapenerako bere hainbat baliabide eskaintzen dira orriotan, besteak beste, bilaketa-motore propioakaz hornidutako kale-izendegia eta enpresa-gida barria.

El Ayuntamiento de Mungia y Mungialdeko Behargintza han estrenado recientemente nuevos portales web. Desde el Consistorio se ha apostado por adaptarse a la tecnología 2.0 así como a todos los estándares de accesibilidad.

El objetivo fundamental es acercar el Ayuntamiento al ciudadano, modernizando y adaptando los contenidos y formatos para facilitar el acceso a la información y los servicios. Para ello, en el caso de la página web municipal, la información se ha clasificado en cuatro grandes áreas: Municipio, Ayuntamiento, Servicios y Turismo. Además, dispone de sub-webs propias para las áreas con marcado carácter de servicio público, como por ejemplo el Consorcio de Servicios Sociales de Mungialdea, Astiunerako Udal Erakundea o Euskararen Txokoa. Con ese mismo objetivo, se ha dotado de numerosos recursos multimedia (vídeos, recreaciones, etc.) a diferentes áreas de la web municipal y especialmente al área de Turismo, lo cual resulta más atractivo para el usuario.

Todas estas medidas contribuyen a crear una plataforma cuyo principal fin reside en una mayor participación ciudadana en los proyectos y actividades que el Ayuntamiento propone.

Así, se ha rediseñado el canal para que el ciudadano contacte con el Ayuntamiento para quejas, reclamaciones o sugerencias con un formulario más ordenado y claro. Asimismo, de cara a los próximos meses se desarrollará la segunda fase del portal web municipal, que consistirá en la integración del ERP (software de gestión) del Ayuntamiento con la Carpeta Ciudadana, de forma que los y las mungiarras puedan realizar los trámites más habituales de forma telemática a través de internet.

Por otra parte, la recién estrenada página web pretende dar también un impulso a la economía y empleo del municipio, potenciando áreas como la Industria, el Comercio o el Turismo. Para ello, entre otras medidas, se ha diseñado un nuevo callejero municipal basado en Google Maps con un motor de búsqueda propio desarrollado para tal fin, así como una nueva guía empresarial basada en la misma tecnología, incluso con la delimitación física de los diferentes polígonos industriales de Mungia.

Con ese mismo fin se ha remodelado la web de Behargintza. El portal de Mungialdea se compone de cuatro grandes bloques como son Empleo, Creación de Empresas, Empresa y Comercio, Hostelería y Servicios. Además, desde la página principal es posible acceder a otros apartados como las Noticias más recientes, el área de Formación, la Guía Empresarial de Mungia o incluso accesos directos a Lanbide o al Sistema Nacional de Empleo.

Concienciados sobre la necesaria austeridad que impera en estos momentos, el Consistorio apuesta por la autogestión, de manera que el portal web es dirigido por personal propio del Ayuntamiento, con el consiguiente ahorro económico en mantenedores externos y ganando enteros también en cuanto a la agilidad y el tiempo de respuesta se refiere.

# Mungia, herri garbia?

## MUNGIA, ¿PUEBLO LIMPIO?

Desde el Ayuntamiento y con la colaboración de la inmensa mayoría de los vecinos y vecinas de Mungia, nos esforzamos día a día por mantener las calles de nuestro pueblo lo más limpias posible. Para ello, disponemos de un servicio de limpieza -que supone a las arcas municipales y, por tanto, a los y las mungiarras, más de 1.651.000 euros al año-, que nos proporciona una imagen, en general, de un municipio limpio y agradable que, tanto quienes residimos como quienes nos visitan a lo largo de todo el año, valoran y destacan.

Sin embargo, hay aspectos que requieren de una reflexión conjunta y de un cambio de actitud y comportamiento por parte de algunas personas, puesto que su conducta poco cívica e irrespetuosa resulta incomprensible para el conjunto de vecinos y vecinas de este pueblo. Señalamos esto en referencia a las escenas que, día a día, -sobre todo los fines de semana- observamos en los distintos puntos de recogida de basuras y en torno a algunas papeleras del pueblo. Escenas con las que todos y todas amanecemos y que obligan al servicio de recogida de residuos a intensificar su tarea con el consiguiente incremento del gasto económico que entre todos debemos afrontar y que ha de desviarse de otras partidas presupuestarias.

A pesar de que contamos con un servicio de recogida de residuos que supone un gasto de 352.000 euros al año, que nos ofrece un servicio continuado en el casco urbano de lunes a sábado; a pesar de que tenemos además a disposición de toda la ciudadanía un servicio gratuito y a domicilio de recogida de enseres para quien lo necesite (que supone un gasto extra de 63.000 euros al año para el ayuntamiento) con sólo llamar por teléfono para concertar un día y una hora; a pesar de todo ello, hay quienes, -desoyendo las distintas llamadas de colaboración que se han practicado en distintas ocasiones y haciendo caso omiso del más mínimo respeto a las normas de convivencia que estamos obligados a mantener quienes vivimos en sociedad- depositan cualquier tipo de residuo en cualquier lugar, a cualquier hora y de cualquier manera, sin importarle las molestias que su conducta pueda ocasionar a sus vecinos y vecinas: así, podemos encontrarnos con las siguientes imágenes:



Mungiako Udalak egunero-egunero egiten dau ahalegina gure herriko kaleak ahalik eta garbien eukiteko, eta mungiarrik gehienek bere bat egiten dabe ahalegin horretan Udalagaz. Horretarako garbiketa zerbitzu bat daukagu kontratatuta –hain zuzen bere udal-diruetatik eta, beraz, herritarrenetatik, urtean 1.651.000 euro baino gehiago hartzen dituana-, eta horri esker gure udalerriaren irudia, orokorrean garbia eta txukuna da; eta horri garrantzi handia emoten deutsagu, bai berton bizi garenok eta bai urtean zehar kanpotik herrira bisitan etorten diranek bere.

Dana dala, gauza batzuetan hausnarketea egin behar dogu danok batera; eta, horren ganera, batzuek aldatu egin behar dabez euren jokabideak eta ohitura txarrak; izan bere, batzuek arlo horretan erakusten daben jarrerea ez da ez bidezkoa ez errespetuzkoa herritarren ganerako multzo osoa kontuan izanda. Hain zuzen bere, egunero ikusi ahal doguz –eta batez bere aste-akabuetan- zaborrak biltzeko gune batzuetan eta herriko paperontzi-inguru jakin batzuetan jokabide desegoki horreen ondorio zehatzak. Arazo horren ondorio kaltegarriok danok jasan behar doguz, zaborrak batzeko zerbitzuek bere aparteko lana egin behar dabe horren erruz eta horrek, jakina, handitu egiten dau gastu ekonomikoa, (hau da, danok ordaindu behar doguna) eta diru hori aurrekontuaren beste partida batzuetatik atera behar da.

Urtean 352.000 euro kostetan jakun zabor-bilketa zerbitzua daukagu, astelehenetik zapatura eten bako zerbitzua eskaintzen deuskuna uriguneän; horrez ganera, zabor jakin batzuen bilketa egiten etxera bertara joaten dan doako zerbitzua bere badaukagu altzariak eta antzekoak batzeko (Udalak 63.000 euro ordaintzen ditu urtero horretarako), eta zerbitzu hori eskura izateko telefonoz deitu eta eguna eta ordua baino ez dira adostu behar. Eta, hori guztia eskura izanda bere, batzuei bardin deutsie, eta gizartean biziteko danok bete behar doguzan gitxieneko arauei ganetik eginda, ezertariko leba barik, edozer ixten dabe edozein lekutan, ze zabor mota dan kontuan izan barik, edozein ordutan eta edozelan, ganerako herritarrei sortzen deutsiezan kalteen ardura barik. Eta, hortik atera geinkez era honetako irudiak:



Zabor-boltsak bata bestearen ganean, edukiontzietatik kanpo. Garbiketa-zerbitzuko arduradunen arabera, askotan ganera, edukiontziok hutsik egoten dira.

Bolsas de basura almacenadas, en muchas ocasiones, fuera de los correspondientes contenedores cuando, curiosamente, según se señala desde el servicio de limpieza, éstos están, muchas veces, vacíos.



Paperontzien ondoan zabor-boltsak botata, ia egunero.

Bolsas de basura depositadas junto a papeleras, día sí y día también.



Koltxoiak, altzariak, karroak eta danetariko objektuak kale erdian itxita. Holangoak asteburu guztietan ikusten dira.

Colchones, muebles, carros y objetos de lo más variopintos depositados en plena vía pública. Esto ocurre sobre todo los fines de semana.



Kartoizko kajak, osorik eta bata bestearen ganean zabor-edukiontzietatik kanpo, norberak zatitu edo tolestu barik, garbiketa-zerbitzuarentzat itxita.

Cajas de cartón que, por no tomarse la molestia de recortar o de doblar para introducirlas en el contenedor correspondiente, se apilan en su exterior, dejando ese trabajo para las personas trabajadoras de la limpieza.



Kristalezko botilak edozein zabor-edukiontziren inguruan pilotuta; jakinda, ganera, hori arriskutsua izan leitekeala ume zein nagusientzat.

Botellas de vidrio que se amontonan junto a cualquiera de los contenedores para que sean llevados a su contenedor correspondiente por parte de las personas empleadas en la limpieza, con el peligro añadido que supone el dejar botellas apiladas en la vía pública al alcance de cualquier persona, incluyendo a menores y mayores.



Estas prácticas hacen que Mungia ofrezca una imagen que no corresponde en absoluto con el esfuerzo que, tanto el Ayuntamiento como la gran mayoría de mungiarras hacemos diariamente para mantener un municipio amable.

Suponen además un peligro para la propia salud pública, por cuanto las basuras son a menudo depositadas sin ningún cuidado en bolsas inapropiadas en plena calle, sirviendo además de alimento para los roedores.

Ante todo ello, queremos, en primer lugar, pedir la máxima colaboración por parte de todos y todas las mungiarras para que estas imágenes no vuelvan a repetirse en las calles de Mungia.

Para ello, informamos de que disponemos de un número de teléfono al que cualquier vecina o vecino que quiera deshacerse de algún objeto o residuo pesado puede llamar para que pasen a recogerlo por su domicilio de forma gratuita.

Jokabide horreen erruz, Mungiaren irudia ez doa bat Udalak eta herritarrik gehienek egiten daben ahalegin handiagaz, hau da, herritarrontzat erosoa eta atsegina dan herria eukiteko gehienok egiten dogun esfortzuagaz.

Osasun publikoari kalte egiten deutsie, ze batzuetan kalean bertan ixten dira zaborrak, edozelan eta, ganera, egokiak ez diran boltsetan sartuta; eta horrek arratoiak eta antzekoak erakartzen ditu.

Horren guztiaren aurrean, beste edozeren ganetik, mungiar guztion alkarlana eta laguntza eskatu gura dogu, era honetako irudiak Mungiako kaleetan sekula gehiagotan ikusi ez daiguzan.

Horretarako, Udalak herritar guztien eskura dauka jarrita etxez-etxeko zaborren bilketa-zerbitzua. Horren bidez, etxean daukagun pisu edo neurri handiko zeozer bota gura dogunean, telefonoz deitu baino ez dogu egin behar, eta debalde etorriko jakuz etxera bota gura dogun hori batzen.



## ETXEZ-ETXEKO ZABOR-BILKETA ZERBITZUA
## SERVICIO DE RECOGIDA DE ENSERES A DOMICILIO

- **Telefonoa** / Teléfono: **94 435 57 55**
- **Ordutegia: Astelehenetik barikura, 8.00etatik 13.30era eta 15.30etik 18.00etara.**
  Horario: De lunes a viernes de 8:00 a 13:30 y de 15:30 a 18:00 horas.

## GARBIGUNEA

- **Ordutegia: Astelehenetik barikura, 9.30etik 13.30era eta 15.30etik 18.30era.**
  Horario: Lunes a viernes 09:30 a 13:30 y de 15:30 a 18:30.
- **Zapatuetan 10.00etatik 14.00etara.**
  Sábados de 10:00 a 14:00.

Cabe destacar asimismo, que existe una Normativa de Utilización de Contenedores de Basura que fue aprobada en Pleno de la Corporación en noviembre de 1.989.

## NORMATIVA DE UTILIZACIÓN DE CONTENEDORES DE BASURA

Dicha normativa establece lo siguiente:

ARTÍCULO 1

El usuario deberá utilizar obligatoriamente envases y recipientes normalizados para depositar los residuos sólidos urbanos en los contenedores municipales, quedando absolutamente prohibido verter la basura directamente a los mismos.

Por envases normalizados se entenderán envases perdidos, sacos de papel o bolsas de plástico, que deberán estar perfectamente cerrados: mediante nudos, lazos corredizos, cintas adhesivas, etc.

ARTÍCULO 2

En ningún caso podrán depositarse en los contenedores de basura, botellas (para los cuales se dispone de contenedores específicos), ni enseres de mobiliario, ni material de construcción, (para los que el Ayuntamiento dispone de un servicio especial de recogida a domicilio).

ARTÍCULO 3

Igualmente queda prohibido depositar productos líquidos o congelados, así como materiales en combustión.

ARTÍCULO 4

Las basuras se introducirán en el interior de los contenedores, evitando su desbordamiento y la acumulación de los residuos en sus alrededores. Una vez depositados los sacos o bolsas de basura se cerrará la tapa.

ARTÍCULO 5

A los fines de aprovechar al máximo la capacidad de los contenedores, las cajas, cartones, etc., que se depositen en los mismos deberán romperse o partirse previamente.

ARTÍCULO 6

Las infracciones a lo dispuesto en la presente normativa serán objeto de sanción por la Alcaldía, de conformidad con lo previsto en la legislación vigente.

Esan beharra dago, ganera, Zabor-edukiontzien Erabileraren ganeko udal-araudi zahar bat dagoala, Udalbatzak 1989ko zemendiko Osoko Bilkuran onartu ebana hain zuzen bere.

## ZABOR-EDUKIONTZIEN ERABILERAREN GANEKO ARAUDIA

Araudi horrek ondokoa ezartzen dau:

1. ARTIKULUA

Erabiltzaileak, udal edukiontzietan hondakinak sartzeko, derrigorrean erabili beharko ditu hiri-hondakin solidoak botateko ontzi normalizatuak. Guztiz galarazota egongo da hondakinak zuzenean edukiontzietara botatea, hau da, ontziren baten sartu barik.



Ontzi normalizatutzat ondoko honeek joko dira: bigarren erabilerako ontziak, paperezko edo plastikozko boltsak.... Ontzi horreek ondo itxita sartu beharko dira edukiontzira: tronbila emonda, zinta itsaskorragaz amarrauta...

2. ARTIKULUA

Zabor-edukiontzietara ezingo da botilarik bota (horretarako aparteko edukiontzia dago-eta), ezta altzaririk edo eraikuntzako materialik bere (Udalak etxez-etxeko bilketa zerbitzua dauka-eta holango produktuak batzeko).

3. ARTIKULUA

Era berean, galarazota egongo da produktu likidoak edo izoztuak edukiontzira botatea, baita sutan dagozan produktuak botatea bere.

4. ARTIKULUA

Zaborrak edukiontzi barruan sartu beharko dira, ganean agirian edo kanpoan pilotuta itxi barik. Hondakin-boltsak sartu ostean, edukiontzia itxi egin beharko da.

5. ARTIKULUA

Edukiontziak ahalik eta ondoen aprobetxatu ahal izateko, bertara botaten diran kaja, kartoi eta antzeko elementuak aldez aurretik zatitu egin beharko dira.

6. ARTIKULUA

Araudi honetan ezarritakoa bete ezean, Alkateak isunak iminteko eskumena izango dau, indarrean dagoan legediak ezarritakoari jarraituta.



# Ibarretxe eta Mungia, bardintasunaren alde lanean

Con la presencia del Lehendakari Ibarretxe, el próximo 31 de octubre se presentará el III Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Mungia. El plan incluye 149 acciones y medidas concretas estructuradas en torno a 4 ejes principales de acción: La mejora de la gobernanza para la Igualdad; El empoderamiento de las mujeres y el cambio de valores; La organización social corresponsable y finalmente, la Lucha contra la violencia hacia las mujeres.

Datorren urriaren 31n Mungiako Emakume eta Gizonentzako III. Bardintasun Plana aurkeztuko da eta Ibarretxe Lehendakaria bere bertan izango da plana babesten. Plana pasa dan udan onartu zan aho batez eta Olalde Aretoan antolatuko dan ekitaldian aurkeztuko da, arratsaldeko zazpietan.

Ekitaldi horretan, 2013-2016 Plana aurkezteaz ganera, 2000. urtetik hona Bardintasunerako Zerbitzuak abiatu dituan ekimen eta jarduereetan Mungian parte hartu daben gizonezkoei eta andrazkoei eskertu gura jake euren laguntza.

2000. urtean Ibarretxe Lehendakaria gobernuburu zala, Bardintasun politikek itzelezko indarra hartu eben, ordura arte baino askoz bere handiagoa. Gaur egun, bardintasunean asko aurreratu dogula uste dogun arren, eta gizarteak berak zein politika publikoek aurrera-pausu handiak egin dabezan arren, oraindik bere bide luzea dogu aurretik. Horren harira, Juan Jose Ibarretxek  Bardintasun politikak sustatzen jarraitzearen garrantziaz egingo dau berba, politika horreek ezinbestekoak dira-eta emakumeen kontrako indarkeriarik bako gizartea lortzeko eta emakume eta gizonen eskubideak bardinak izan daitezan.

Horren ostean, eta jardunaldiari amaiera emoteko, Amaren Eskuak filma eskainiko da doan.

Planak 4 ekintza-ildo nagusi izango ditu. Lehengoa, Bardintasunerako gobernantzaren hobekuntza: podere publikoen esku-hartzea zuzena, kalidadezkoa eta eraginkorra izateko neurriak batzen dira esparru honetan. Bigarrena, emakumeak ahalduntzea eta baloreak aldatzea: esparru honen helburua andrazkoei tresna egokiak emotea da, erabagiak hartzeko beharrezko daben autoestimua indartu, hartu-emonetarako espazioak sortu eta bardintasun ekintzetan parte hartu daien. Horregaz batera, estereotipoak edo genero rolak aldatu beharra dago eta horretarako egingo da lan, batez bere, heziketa zentroetan (umeak, gazteak, irakasleak eta familiak), baita gizonen ekarpenakaz bere. Hirugarren lan-ildoaren bidez, antolaketa sozial alkar-erantzulea lortu gura da, hau da, andra eta gizonek euren denporea modu justuagoan eta orekatuagoan banatu daiela. Azken ardatza, laugarrena, andrazkoek jasaten daben indarkeriaren kontrako burruka da, egungo gizartean dan ezbardintasunik eta gordinenetakoa. Horretarako, Planak bi eginbide planteatzen ditu: batetik, indarkeriaren prebentzinoa eta sentsibilizazinoa, eta bestalde, biktimentzako arreta eta laguntza. Ardatz horreek guztiek 149 neurri zehatz bilduko dabez, etorkizunean Mungia justuagoa eta solidarioagoa izan daiten.



# Mungia Saharaaren alde

Mungiarrek, urtero lez, "Oporrak bakean" Programagaz bat egin dabe udan honetan bere. Fronte Polisarioak Euskadin daukan ordezkaritzaren egitasmo honen bidez aurton 4 umek emon dabe uda gure herriko lau familiatan. Oraingoan, ganera, herriko jaiak disfrutatzeko denporeagaz heldu ziranez, San Pedro Egunean egin jaken ondoetorri-ekitaldia Torrebillela parkean, umeentzako jarduerak antolatuta egozan egunean. Bertan, Mungiako "Saharakide" Erakundearen eskutik, umeentzako paseo bereziak antolatu ziran –dromedario ganekoak– eta haima bat bere eraiki eben.



Mungia se ha caracterizado desde siempre por ser un pueblo solidario. Además, cuando las causas implican de alguna manera a la infancia los mungiarras se muestran como un pueblo entregado, generoso y unido.

Ejemplo de ello es la participación en el programa Vacaciones en Paz dirigido por la Delegación del Frente Polisario en Euskadi, a través del cual los niños y niñas provenientes de los campamentos de refugiados de Tindouf tienen la posibilidad de ser acogidos por familias del municipio durante los meses de verano. Como todos los años, el Ayuntamiento de Mungia, junto con el Consorcio Mungialde de Servicios Sociales ha participado en dicho programa.

Así, los niños provenientes del Sahara dejaron atrás por unos meses la cruda realidad de los campamentos de población refugiada donde vive este pueblo exiliado desde 1975 en extremas condiciones de vida. Gracias al programa, los niños y niñas han disfrutado de un verano que para cualquier mungiarra puede ser el habitual o "normal", pero que ellos de ninguna manera podrán olvidar. Una buena alimentación, juegos, piscina, monte, playa, nuevos amigos y un sinfín de actividades protagonizaron las semanas en las que estos niños y niñas vivieron aquí, junto a sus familias mungiarras, las vacaciones que todo niño o niña debería poder disfrutar.

En este sentido, el programa responde a una demanda humanitaria, pero "no debemos perder de vista que se trata de un programa de acogida solidaria, reivindicativa y de sensibilización social", aseguran sus responsables. Por eso, las vacaciones solidarias no tratan solo de ofrecer unas semanas de descanso y bienestar a estos niños y niñas, sino también de conocerles, descubrir otras realidades y educarnos (a mayores y pequeños) en el convencimiento de que todos somos iguales ante la violencia y la pobreza.

Este año han llegado a Mungia siete niños y niñas, de los cuales cuatro han sido acogidos por familias del municipio. Los niños llegaron los días 24 y 25 de junio, por lo que este año han podido vivir de lleno las pasadas fiestas de San Pedro y disfrutar como cualquier otro niño o niña mungiarra de todas las actividades que las fiestas del municipio han ofrecido a los más pequeños. Cabe destacar además que este año, el recibimiento de los niños y niñas se realizó coincidiendo con las actividades infantiles organizadas en Torrebillela Parkea dirigidas al público infantil, el día de San Pedro. Entre otras actividades, se organizaron paseos en dromedario para los más pequeños y la Asociación Saharakide de familias acogedoras de Mungialde habilitó una haima con artículos y decoración similar a las haimas de los campamentos saharauis con el fin de dar a conocer la labor que desarrolla la asociación y animar a más personas para que tomen parte en este programa. La actividad fue todo un éxito, ya que cientos de familias se acercaron a Torrebillela Parkea para conocer más de cerca esta realidad.

Los niños regresaron a los campamentos el día 26 de agosto, a la espera de poder repetir la experiencia el próximo año. En Mungia, las familias les esperan con los brazos abiertos.

# E-rezeta elektronikoa ailegatu da Mungiara

Datozan asteotan Mungian bere Errezeta Elektronikoa edo e-rrezeta eukiko dogu Euskadiko beste herri askotan lez. Sistema barri honen helburua herritarrek euren botikak erraz eta modu seguruagoan eskuratzea da.

## Zer da E-rezeta?

Neurri honegaz, betiko paperezko errezeta desagertu egingo da, eta sistema barri seguruago eta eraginkorragoa izango dogu. Aurrerantzean osasun txartela erakutsi beharko da farmazietan, medikuak agindutako botikak eskuratzeko.

## Zer egin behar dot horretarako?

**Medikuaren kontsultara zoazen hurrengoan**, eroaizu aldean zure osasun txartela. Ez deutsue errezetarik emongo, ezpada ze Tratamentu Orria. Orri horretan botiken izenak, dosiak eta tratamentuaren bukaera eguna edo barriztatu behar dan eguna argi idatzita agertuko jatzu.

**Farmazian** zure osasun txartela erakutsi beharko dozu identifikatzeko eta, beste barik, botikak zuzenean emongo deutsuez. Tratamentu luzeagoen kasuan, behin eta barriro kontsultara joaten ibili behar izan barik, farmazian bertan jasoko dozuz behar dozuzan botikak.

## Ze bentaja dauka honek niretzat?

- **Erosotasuna**: ez dago zertan osasun-zentrora joan errezeten bila; botikak farmazian emongo deuskuez zuzenean.
- **Informazino zehatza eta argia** eukiko dogu Tratamentu Orrian.
- **Segurtasun handiagoa**, izan bere, osasun arloko profesional guztiek jakingo dabe eta ze botika hartzen dogun eta, horretara, ebitau egingo dira batera hartu ezkero kaltea sortzen daben botika desbardinak hartzea edo botika bera behin baino gehiagotan hartzea.
- **Fidagarritasun osoa**: farmazian medikamentua zein dan eta zenbateko dosian behar dogun zehatz jakingo dabe beti.
- **Osasun arloko profesional guztien arteko koordinazino hobea** (Osasun Zentroa eta Farmaziak) bidea ondo eta arin egiten dala ziurtatzeko.

Hori guztia, gaur egungo osasun zerbitzuak mantenduta eta bakotxaren datu pertsonalen konfidentzialtasuna bermatuta egingo da.

ZALANTZARIK IZAN EZKERO: Galdetu **Osasun Zentroan** edo Mungiako edozein farmaziatan. E-rrezetaren Gida emongo jatzu, gai honen inguruko informazino osoa daukana. Gida hori interneten bere badago eskuragarri: **www.e-rezeta.net**

# La receta electrónica “e-rezeta” llega a Mungia

En las próximas semanas se implantará en Mungia, al igual que en otros municipios de Euskadi, la Receta electrónica (e-rezeta), con el objeto de facilitar a la ciudadanía una forma más segura y sencilla de obtener sus medicamentos.

## ¿Qué es la e-rezeta?

Es un nuevo sistema de prescripción de medicamentos más seguro y eficaz, con el que desaparece la receta de papel. Ahora habrá que presentar la tarjeta sanitaria en la farmacia para obtener los medicamentos prescritos.

## ¿Cómo funciona?

**En tu próxima consulta médica** tendrás que llevar tu tarjeta sanitaria. Ya no te darán recetas pero te entregarán la **Hoja de Tratamiento**, una información clara y sencilla con el nombre de los medicamentos, su dosis y la fecha de finalización o revisión de tu tratamiento.

**En la farmacia**, te identificarás con tu tarjeta sanitaria y te proporcionarán la medicación directamente. Y, si te han prescrito medicación continuada, podrás recogerla en la Farmacia periódicamente sin tener que volver a la consulta hasta tu siguiente revisión médica.

## ¿Qué beneficios tiene para mi?

- **Comodidad**, ya no hay que desplazarse sólo para buscar recetas y visados al centro de salud; en la farmacia te dispensarán los medicamentos directamente.
- **Información más detallada y clara** con la nueva Hoja de Tratamiento que te entregarán en la consulta.
- **Mayor seguridad**, ya que cualquier profesional sanitario autorizado podrá saber qué medicación tomas y evitar interacciones o duplicidades de medicamentos.
- **Fiabilidad total**: en la farmacia estarán totalmente seguros del medicamento y dosis prescritas y podrán prestarte una mayor atención farmacéutica.
- **Mejor coordinación de todos los profesionales sanitarios** (Centro de Salud y Farmacias) para garantizar la mejor y más ágil actuación.

Y todo ello, manteniendo las actuales prestaciones sanitarias y garantizando la confidencialidad de los datos de carácter personal.

MAS INFORMACION: en el **Centro de Salud** o en **cualquier farmacia** de Mungia. Te entregaran la “Guía de la e-rezeta” con información completa sobre la receta electrónica. También puedes descargar esta guía en internet en: **www.e-rezeta.net**



# Osasun eta giza arretarako esku-hartze protokolo barria sinatu da

El Consorcio Mungialde de Servicios Sociales, (Arrieta, Bakio, Gamiz-Fika, Laukiz, Meñaka y Mungia), firmó el 26 de septiembre un protocolo de actuación elaborado entre los servicios de salud de atención primaria, nuestro hospital de referencia, los servicios sociales municipales y el Departamento de Acción Social de la Diputación Foral. El objetivo es mejorar la atención de personas mayores, dependientes o en riesgo de dependencia, a través del desarrollo de equipos de atención primaria sociosanitaria que se comprometen a intervenciones conjuntas.

Mungialdeko Gizarte Zerbitzuen Partzuergoak (Arrieta, Bakio, Gamiz-Fika, Laukiz, Meñaka eta Mungia) irailaren 26an jokabide protokolo bat sinatu eban. Protokolo barri horren bitartez, mendekotasuna daukien edo mendekotasuna izateko arriskuan dagozan edadekoei arreta egokiagoa eskainiko jake. Helburu hori beteteko, erakunde eta diziplina ezbardinetako arloek alkarregaz koordinatzeko konpromisoa hartu dabe, eta horretarako, oinarrizko osasun eta arretarako lan-taldeak sortu dira.

Alkarlan horren bidez, batetik –eta egoera horretan dagozan herritarrei momentu guztietan behar daben arreta eukiko dabela bermatzeko– edadeko jenteari erraztasunak emongo jakoz eurentzako diran zerbitzuak jasoteko. Eta bestetik, erakundeek edadekoen beharrizanei protokolo bateratu eta koordinatuak erabilita erantzungo deutsee. Horren ganera, diziplina eta erakundeen arteko alkarrizketa foro bat bere zabalduko da, arreta eredu barria garatu ahal izateko, Lehenengo Osasun eta Giza-Arreta Taldeetan oinarrituta egongo dan eredua. Bide horretatik, prebentzinoa bultzatuko da, mendekotasuna edo dependentzia ebitatzeko eta autonomia sendotzeko jarduerak egingo dira eta erakundeek alkarlanean antolatuko dabez euren esku-hartzeak, beti bere, ahalegina eginda mendekotasuna daukien edadeko horreek euren bizilekuan eta inguruan jarraitu daien.

Aitatutako protokolo hori lehenengo arretarako osasun zerbitzuek, Eskualdeko ospitaleak, udaletako gizarte zerbitzuek eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak osatu dabe. Tresna erabilgarri, praktiko eta dinamikoa izatea espero dabe, irizpide bateratuen eta koordinatuen bidez egoera horretan dagozan herritarrei laguntzeko lengoaia komun bat sortuko dauen tresna hain zuzen bere.



# Mungiak Lantegi Batuak-en saria jaso dau




"Lantegi Batuak", la entidad dedicada a la inserción laboral de personas con discapacidad, ha celebrado su 30 aniversario, entregando premios a empresas e instituciones por su compromiso con esta filosofía, entre las que se encuentra el Ayuntamiento de Mungia. "Lantegi Batuak" es la encargada de realizar los trabajos de jardinería del municipio, y, por ello, el premio fue entregado por uno de los trabajadores empleados en el taller de jardinería de Mungia, Jon Ander Ugarte.

# Mungia quiere ser 'amigable' con sus mayores



Ageing Research gerontologia ikertaldeak ikerketa/ekintza parte-hartzailea prestatu dau Munduko Osasun Erakundearen "Hiri Lagunkoiak Pertsona Nagusiekin - Age friendly Cities" proiektuaren laguntzagaz. Mogimendu sozialetan ibilten dan jendeak, alkarteetako kideek zein beste edozein persona nagusik parte hartu ahal izango dabe bertan eta ikerketa taldearen parte aktiboa izateko trebatuko dabez. Horretara, herritarren eguneroko bizimoduan eragina daukien hainbat gai aztertuko dira eta arlo horreetan aurrera egiteko proposamenak batuko dira txosten baten bidez.

El Ayuntamiento de Mungia va a llevar a cabo un proyecto de investigación - acción participativa con personas mayores en el ámbito del empoderamiento

personal y comunitario diseñado por el equipo de investigación en Gerontología de la Universidad de Deusto Ageing Research y apoyado en el proyecto Ciudades amigables con personas mayores - Age friendly Cities. Y es que el Consistorio lleva más de diez años desarrollando acciones de participación ciudadana y fomento de la convivencia con resultados muy positivos.

El proyecto comprende dos partes, una de investigación y otra de acción. Con la primera, se pretende realizar un análisis de diferentes aspectos de nuestro municipio, evaluando hasta qué punto Mungia es un pueblo amigable para con las personas mayores. De esta manera, se prevén identificar los aspectos a mejorar para que el municipio resulte más cómodo, acogedor e integrador para este colectivo. En la segunda fase, se llevarán a cabo las medidas y propuestas consensuadas.

Así pues, un informe recogerá las propuestas de acción para mejorar el día a día, la participación y el empoderamiento de nuestros mayores. Para la materialización de dicho informe, se creará un grupo motor de unas 15 ó 20 personas representativas del municipio que aporten puntos de vista variados. El grupo sondeará y recogerá información a través de encuestas, entrevistas, grupos de discusión y otras técnicas. Así, y una vez preparados los integrantes del grupo, se iniciará el proceso de investigación (fase 1), a través del cual se analizarán 8 temas para obtener una visión integral de la amigabilidad del municipio: Espacios al aire libre y edificios; Servicios sociales y de salud; Comunicación e información; Respeto e inclusión social; Empleo y participación; Redes y apoyo social; Vivienda y Transporte. Una vez finalizada la investigación, se redactará un informe que recoja las propuestas de acción que el grupo motor haya consensuado.

Con todo, el desarrollo del proyecto quiere asimismo potenciar el empoderamiento de los participantes, promover la participación de este colectivo en todos los aspectos de la localidad y generar nuevas relaciones vecinales.

El equipo motor se reunirá cada quince días y contará con el apoyo y dinamización del equipo de investigación de la Universidad de Deusto, que guiará el proyecto en todas sus fases y orientará a los participantes durante todo la ejecución del proyecto aportando los recursos tecnológicos necesarios para el progresivo empoderamiento de los agentes locales y las personas mayores de Mungia.

En las próximas semanas dará comienzo la iniciativa y desde aquí invitamos a todos los interesados a participar de este ilusionante proyecto.



# Txispeleta, beti prest



Después de recibir hace unos meses el premio AMAtxu como reconocimiento al trabajo realizado durante los últimos 35 años, el grupo Txispeleta continúa en su labor desinteresada con la juventud de Mungia. Ahora busca jóvenes voluntarios para poder continuar con esta tarea, educando en valores éticos como el trabajo en equipo, el compromiso, la igualdad o la solidaridad a los niños y jóvenes, siempre de una manera lúdica y divertida.

Urtero lez, joan dan maiatzaren 5ean, AMAtxu Sariaren 11. edizinoa ospatu zan Mungian. Aurton Txispeleta Eskaut Taldeak jaso eban saria udaleko alkatearen eskutik, neska eta mutil gazteen artean alkartasuna, konpromisoa, bardintasuna eta gizarte baloreetan oinarritutako hezkuntza zabaltzen urte luzeetan egindako lanagaitik.

Egun horretan bertan, Txispeletak gonbidapen bat luzatu eutsan Udalari, udan antolatzen dauan kanpamenduan egindako lana ezagutu daian, urtean zehar egiten daben lanaren adibide. Garagarrilaren bigarren hamabostaldian, azken 34 urteotan gertatu dan lez, Mungiako gazte eta ume talde batek motxilak hartu ebazan inguru natural parebakoan –Burgoseko iparraldean dagoan Escanduso izeneko herrian – bi aste alkarregaz pasetako. Kanpamentuaren akabuko egunean, familiek gazteak bisitau ebezan. Familiakaz batera, Izaskun Uriagereka alkatea eta Udaleko zinegotzi bat bere joan ziran Escandusora neska-mutilen etxea izandako lekua bertatik bertara ikusteko. Han, umeen taldeek hartutako konpromisoagaz ohartu ziran: gaztetxu bakotxak (bere edadearen arabera) bere ardurak eukazan, eta, danen artean, talde-giro aparta osatu eben.

Hamabost egunetan zehar, hainbat jardueratan parte hartu eben Txispeletako gazte eta umeek, beti bere eskaut metodologia jarraituta eta kursorak eukazan hezkuntza-helburuetara egokituta. Izan bere, udako kanpamentua oporrak era dibertigarrian pasetako modu bat baino asko bere gehiago da. Bertan batzen diran ume eta monitoreentzako bizipen berezia izaten izan da urtero, balore alternatiboetan oinarritutako bizimodua gauzatzeko aukerea, lagunen artean eta kristau-baloreakaz batera hazteko momentu aproposa.

Baina Txispeleta udako kanpamentu bat baino asko bere gehiago da. Taldeak ikasturte osoan zehar egiten ditu ekintzak, asteburuetako batzarrak eta urteerak. Horretaz ganera, Euskal Herriko eta Bizkaiko eskaut mugimenduko ekitaldietan bere hartzen dau parte, baita Parrokiako zein gure herriko eguneroko bizitzan bere. Lan hori guztia gazte talde boluntario bati esker egiten da, talde handia izan ez arren, gogo handiz lan egiten dauen taldea. Izen bere, Eskaut taldeak bizitzeko benetako filosofia eskaintzen dau, eta bakotxaren etenbako heziketa eta hazkunde pertsonala indartzen ahalegintzen dira, balore etikoak eta konpromisoa ardatz hartuta. Baina horretarako Txispeletak herritarren laguntza behar dau: "txalupa honek ur ganean jarraituko badau, gure norabidean arraun egingo daben besoak behar-beharrezko doguz, mundu hobea lortzea posible dala sinistuta gagoz eta", adierazo eben Txispeletakoak saria jasotean.

Bide horri jarraituta beraz, proiektura jente barria hurbildu daiten eta 35 urte beteko dituan Txispeleta aurrera eroateko "besoak", buruak eta bihotzak gehitu daitezan, jarri hartu-emonetan eurakaz: txispeleta@txispeleta.org edo www.txispeleta.org.

# Mungiako JM Arregi Abesbatzak alkartasunaren iturria eskaini eutson Bordeleko Eskual Etxeari

JM. Arregi Abesbatza celebra su 60 aniversario con una serie de eventos que comenzaron el 21 y 22 de septiembre con su visita y concierto en la Eskual Etxea de Burdeos. En agradecimiento al apoyo y colaboración recibidos por parte de la Eskual Etxea, se hizo entrega de una carta de agradecimiento de nuestro Ayuntamiento junto con el símbolo más representativo de Mungia, la fuente de la concordia (Alkartasuna).



Mungiako JM Arregi Abesbatza bere 60. urteurrena ospatzeko ekitaldien prestaketan murgilduta dago eta, horren barruan, irailaren 21 eta 22ko asteburuan Bordelera egin eban bidaia bertako Eskual Etxeak konbidatuta MASCARET jaialdian parte hartzeko. Gure koruak ibilbide luzea eta zabala dauka, eta asteburu horretan ondo erakutsi eban Bordelen, euskal folkloreko kantak abestuta eta Mungiako izen ona harro zabalduta bertako bazter guztietan. Horretara, ekitaldi honen bitartez JM Arregi Abesbatzak 60 urte baino gehiagoko ibilbidea behar dan moduan ospatzeko bideari ekin deutso.

Kontzertua Eskual Etxeko koruak hasi eban euskerazko hiru abestigaz. Horren ostean, Bordeleko koruak eta Mungiako abesbatzak batera kantau eben eta "Txanton piperri (Euskal herriko semeak gera)" entzun ahal izan eben bertaratu ziran lagun eta entzule guztiek. Gero, Mungiako abesbatzaren txandea etorri zan, eurak bakarrik, eta hamabi bat abesti eskaini ebezan; entzuleen harrerea ezin hobea izan zan.

Bidaia esperientzia itzela izan da taldearentzat, kideen jai-giroko poza aparta izan da eta batasuna eta alkartasuna indartu egin dira berorri esker. Programearen barruan beste era bateko jardueretarako denporea bere izan dabe: zapatuan uria ikusteko bisita gidatuaz gozatu eben eta gero Parlamentuko Plazan afari ederra dastatu eben; domekan, barriz, Garona ibaian zehar zirkuitu bat egin eta Erdi Aroko S. Emilion uria bisitatu eben. Koruaren abestiak bazter guztietan entzun ahal izan ziran, eta ingurura batu jakezan herritarrak eta turistak mirestuta lotu ziran.

Ezin da aitatu barik itxi Bordeleko Eskual Etxeak Mungiako abesbatzak jaialdian parte hartzeko egindako ahalegina, baita bidaia prestatzeko emondako laguntza bere. Horregaitik, hareen laguntzinoa eta alkarlana eskertzeko, Udalaren gutun bat eta Mungiako ikurrik adierazgarriena eskaini jaken, hau da, Alkartasunaren iturria. Hain zuzen bere, iturri horrek bat egiten daben esku bi eta "Biak bat eta biena" leloa erakusten ditu. Esaldi hori udal biek batera, hau da, Uriak eta Elizateak batera, 1883an ura Gondramenditik ekarri ebenekoa da. Izan bere, udal biak batu egin ziran bientzako proiektu bat aurrera aterateko. Eskual Etxeko ordezkariek ikurrari aparteko lekua emongo eutsiela agindu eben eta atea zabalik itxi eben aurrerantzeko hartuemon eta alkarlanetarako.



# El Festival Internacional de Cine Invisible llega a Mungia

Mungiako Udalak lehenengo aldiz hartu dau parte Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdian eta komertzialak ez diran 22 pelikula ekarri dira aurten Olalde Aretora. Lau gai nagusiren ingurukoak izan dira eskaini diran filmak: giza eskubideak, kulturartekotasuna, genero bardintasuna eta garapen iraunkorra. Alex Sardui eta Iker Caballeroren musikeagaz hasi zan jaialdia eta atzerriko hainbat herritatik heldutako zine-zuzendariak batu ziran Mungian. Jaialdiak sano erantzun ona jaso eban mungiarren artean, eta edade guztietako ikusleak bertaratu ziran. Ondorioz, datorren urtean bere esperientzia hori Mungian atzera bere izatea gura dabe Udaleko arduradunek.




El Ayuntamiento de Mungia ha tomado parte por primera vez en el Festival Internacional de Cine Invisible de Bilbao organizado por la ONG de Cooperación al desarrollo Kultura, Communication y Desarrollo.

El festival, que este año celebraba su quinta edición, trajo a Olalde películas no comerciales sobre derechos humanos, interculturalidad, desarrollo sostenible y equidad de género, entre otras temáticas. Con ello, el Consistorio ha pretendido abrir un espacio de diálogo y reflexión entre el público sobre las problemáticas que afectan a nuestra sociedad, utilizando el cine como vehículo. Además, se impulsó la participación de los alumnos del Instituto de Mungia en el festival incluyendo proyecciones en el propio centro, que sirvieron para trabajar temáticas y valores tratados en los filmes, con el valor añadido que ello supone para la educación de los jóvenes.

El estreno en Mungia tuvo lugar el viernes 27 de septiembre con la actuación de Alex Sardui y Mikel Caballero, cantante y bajista de Gatibu respectivamente, así como con una demostración de herri kirolak que obtuvo gran éxito, sobre todo entre el público extranjero. No hay que olvidar que entre los asistentes al estreno hubo directoras y realizadoras procedentes de otros países como Suecia y Nicaragua, entre otros.

Los premios se clasificaron en ocho categorías, de los que la mayoría de filmes ganadores fueron proyectados en Mungia. Cabe destacar además que Mungia patrocinó el premio especial de los estudiantes en este festival, entregado por Izaskun Uriagereka, alcaldesa de Mungia, el día 3 de octubre en la gala de clausura del Festival en la Alhóndiga de Bilbao junto con otros premios patrocinados por el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Bizkaia, el Colegio de Abogados y el Ayuntamiento de Bilbao.

La valoración del Festival ha sido pues muy positiva tanto para la ONG organizadora, KCD, como para el Ayuntamiento de Mungia y para el público asistente. Y es que durante los 3 días que duró el festival la asistencia media fue de 140 personas, de diferentes rangos de edad. El Consistorio en concreto se muestra muy satisfecho por la respuesta que ha obtenido esta nueva experiencia y es por ello que espera poder ser sede también en la próxima edición del festival.



# Mungia enseña sus tesoros

Mungiako Udalak, urtero lez, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen dituan Ondarearen Europako Jardunaldietan hartu dau parte aurtengo urrian bere. Jardunaldi horreek, aurten, gizakiak esku-hartutako ondarea izan dabe ardatz. Jardunaldion egitarauaren barruan, urriaren 20an eta 27an Landetxo Goikoa baserria eta Torrebillela eraikina bisitatzeko aukera egon da. Bisita gidatuak doan izan dira eta eraikinok gaur egunera arte jasan dabezan eraldaketak ezagutzeko aukerea eskaini jake bisitariei.



Un año más se han celebrado durante todo el mes de octubre las "Jornadas Europeas de Patrimonio" que, organizadas por el Departamento de Cultura de la diputación Foral de Bizkaia y los Ayuntamientos participantes, se han desarrollado en 64 municipios de Bizkaia, entre los que se encuentra Mungia. Este año las Jornadas se han dedicadp al patrimonio vizcaíno que ha sido intervenido por el hombre, con lo que se persigue concienciar a la ciudadanía sobre la necesidad de realizar estas actuaciones como medida imprescindible para salvaguardar nuestro patrimonio y, con él, nuestra memoria histórica.

Mungia, ha decidido mostrar Landetxo Goikoa y Torrebillela, ya que ambos edificios han experimentado la acción del hombre. En el caso de Landetxo goikoa, se trata de uno de los caseríos tardogóticos mejor conservados y restaurados de Bizkaia. Además, dentro del mismo edificio y en su entorno se ha recreado el mundo de los mitos y leyendas vascos, un patrimonio inmaterial que se ha logrado salvar con el trabajo y esfuerzo de un gran número de mungiarras así como del Consistorio municipal. En el caso de Torrebillela, la intervención ha sido más compleja, ya que han sido varios los procedimientos a lo largo de los siglos: en 1852 la torre fue transformada: el edificio tardomedieval se convirtió en el primer palacio historicista vizcaíno, en el que se combinaba lo neogótico con lo neorrenacentista, convirtiendo a Mungia en pionera de estos nuevos estilos. Tras más de un siglo de abandono, una última intervención le dio a Torrebillela su aspecto actual. El día 27 de octubre asimismo, en la edición de LORE JOKOAK 2013 se representó "la batalla de Mungia" como hecho histórico de gran trascendencia en la historia de nuestro pueblo, ya que supuso la unión de gamboinos y oñacinos, tras largos años de guerras incesantes contra el Conde de Haro.



Además, cabe destacar que el día 6 de octubre tuvo lugar una única visita al Palacio Urgoiti, ya que a pesar de ser un patrimonio privado, tiene un gran interés cultural por el esfuerzo realizado por los propietarios trasladando este impresionante palacio piedra a piedra desde su ubicación original a la loma de Mungia en la que se ubica en la actualidad.

Las visitas al público fueron gratuitas y se celebraron los domingos 20 y 27 de octubre, en grupos de 4 personas. Se pudo optar entre una visita de dos horas que comprendía ambos edificios (incluida la parte mitológica de Landetxo Goikoa), o una visita de una hora eligiendo el edificio que más interesaba al asistente. El punto de encuentro de las visitas fue Landetxo Goikoa. Las visitas de nuestro municipio fueron en euskera, castellano o inglés, de esta manera se ofreció tanto a mungiarras como a visitantes o turistas la oportunidad de conocer los edificios más emblemáticos de nuestro pueblo, nuestro pasado y nuestro presente.

# Lauaxetxu, euskaldunon akuilua!

Mungia herri euskalduna da eta guztion asmoa euskeraz bizitzen jarraitzea eta gure herrian erabilera zabaltzea da, duda barik. Horregaitik, Udaletxeak, euskeraren etorkizuna diran umeei zuzenduta, Lauaxetxu maskotea atera eban kalera udabarrian. Maskota horren bidez, euskara ikusgarri eta batez ere entzungarri bihurtu gura da, hau da, kalean, eta umeak bitarteko dirala, Lauaxetxuren inguruan diran euskaldunak euskarara ekartea da helburua. Izan bere, kaleak aukera zabala eskaintzen dau horretarako, ez bakarrik herriko plazetan dagozan umeentzako jolasguneetan, ezpada ze, bertan inguruan egiten diran kirol ekintza ugarietan, musika emonaldietan, plazen bueltan sortzen dan lagunarte giro ederrean... Hori dala-eta, aurten hainbeste ekitaldi eta jaietan ikusi ahal izan dogu Lauaxetxu Mungian, Kepa Deuna Futbito txapelketan lehenengoz eta gero San Pedro jaietan, baita "Euskaraz bizi nahi dut" martxan bere, eta aurrerantzean bere mungiarrok xaxatzen, akuilatzen ibiliko jaku Lauaxetxu.

# Mungiarrok euskeraz bizi gura dogu

Aurten, barriro bere, Mungiako Udalak "Euskeraz Bizi Nahi Dut" Herri Martxa antolatu eban Kontseiluagaz batera irailaren amaieran. Herriko ikastetxe guztiek hartu eben parte bertoko hainbat alkarteren laguntzagaz egin zan ekitaldian. Edade guztietako jentea kontuan hartuta antolatu zan martxa hori Mungiako kale nagusienetako batzuetatik pasatu zan jai-giroan, mungiarrok euskeraz bizi gura dogula aldarrikatzen. Esan beharra dago aurten parte-hartzaile kopurua bikoiztu egin dogula 2012ko edizinoaren aldean: 600etik gora lagunek hartu eben parte. Euskeraren aldeko Manifestuaren irakurketa eta oparien zozketa egin ziran, besteak beste. Kamiseten, rifen eta diplomen salmentagaz 3.200€ baino gehiago eskuratu ziran Kontseiluarentzat, Euskeraren alde lan egiten jarraitu daien. Egitasmo honek daukan helburua aintzat hartuta, hau da, gure hizkuntzaren erabilera suspertzea, Mungiako Udalak ekimen hau bultzatzen jarraituko dau, eta mungiarron agendatan bere lekua izatea espero dau, euskaldunontzat egun berezia izan daiten.



# Euskeraren erabilera suspertuz

Mungiarrok herri euskalduntzat izan dogu beti gure herria, izan be, euskaldun indizea nahiko altua da (%66,81). Halanda bere, badakigu, erabilera ez dala guk gurako geunken bezain altua, eta egoera horri bueltea emoteko, Udalak ekimen asko burutzen ditu urtean zehar normalkuntza planaren bidez. Hainbeste arlotan egiten diran lan horreetatik guztietatik aspaldi honetan garatzen gabiltzan hiru ekimen nabarmendu gura doguz: batetik, "Gurasoentzako Sentiberatze kanpaina", gurasoek euren hizkuntza-jarrerek umeengan daukien eraginaz konturatu eragiteko asmoz sortu dana. Bigarrenik, "Gure Alkarteetan Euskeraz" kanpaina, alkarteen eguneroko jardunean euskeraren erabilera indartzeko programa honen bidez alkarteei helburuak eta irizpideak iminten lagundu gura jake. Azkenik, Labayru Ikastegiagaz alkarlanean prestatuko diran unidade didaktikoak bere aipamen berezia merezidu dabe, izan bere, Haur eta Lehen Hezkuntzako umeentzako egingo dan material didaktiko hori igaz bertoko jendeari egindako grabazino etnografikoetan oinarrituko da. Gure kulturaren eta euskeraren kateari eusteko tresna baliagarria izatea espero dogu.

# Mungiako Udala herri kirolakaz bat

Astiunerako Udal Erakundea y la Federación Vizcaína de Deporte Rural han firmado un acuerdo en el que el Ayuntamiento cede las instalaciones de "Herri Kirolen Parkea" para los entrenamientos de la federación. Ésta se compromete a crear en un futuro una escuela de Deporte Rural para niños en el municipio.

Pasa dan garagarrilaren 1ean, Astiunerako Udal Erakundeak eta Bizkaiko Herri Kirolen Federazioak alkarlanerako hitzarmena sinatu eben. Hitzarmen horren helburu nagusia euskal jolas eta kirolen modalidadeko jarduerak sustatzea da, bai Federazioko kideen artean, bai mungiarren artean, bai interesa erakusten daben herritarren artean bere.

Horretarako, alde batetik, Mungiako Udalak Bizkaiko Herri Kirolen Federazioari Herri Kirolen Parkea erabilten itxiko deutso astelehen, eguazten eta barikuetan, arratsaldeko 19:00etatik aurrera, entrenamentuak bertan egin ahal izateko. Izan bere, Bizkaiko Federazioak, instalazino nahikoak ez eukiezala ikusita, Mungiako Udalera jo eban laguntza bila, hau da, Olalden dagoan Herri Kirolen Parkea erabilteko proposamena aurkeztu eutsan Udalari. Orduan, erabilera egokia eta ordenatua antolatzeko, hitzarmen bat sinatu eben alde biek. Horren ganera, Bizkaiko Herri Kirolen Federazioak Mungian umeentzako Herri Kirolen eskola bat sortu eta suspertzeko konpromisoa hartu eban.

Mungiako Udalak indarra emon gura deutse herri kirolei gure herriaren nortasunaren ikurra dira eta; horretarako bere esku daukazan tresna guztiak erabiliko ditu. Bide beretik, ezin da aitatu barik itxi Astiunerako Udal Erakundearen bitartez bere herri kirolak ezagutu eta horreei zabalkundea emoteko jarduera gidatuak antolatzen dirala. Egitasmo horren helburua bisitariei euskal herri kirolak ezagutzera emotea da, hasteko azalpen-DVD bat erabilten da eta, gero, Olalden bertan, kirol-monitore batek lagunduta, kirolak zuzenean ikusi eta praktiketako aukera eskaintzen da.



# Hípica: Copa Mungia de saltos

Lehenengoz entzun ahal izan dogu euskerea era honetako proba hipiko baten. Mungiako Hipika Klubak eta Euskal Hipika Federazinoak, Mungiako Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzagaz Mungiako Saltu-Kopea antolatu eben garagarrilaren 30 eta 31n eta abuztuaren 2, 3 eta 4an.

Participaron un total 207 jinetes, hombres y mujeres venidos tanto de Euskadi como de Catalunya, Asturias, Cantabria e incluso desde Francia que pasaron dos fines de semana en el municipio, pernoctando en nuestros hoteles y disfrutando del trato cercano de nuestros comercios y establecimientos hosteleros.

El campeonato constaba de una prueba cronometrada de salto de obstáculos en un circuito predefinido sobre pista equitrack, y la altura de los obstáculos a saltar por los jinetes fue desde los 0,80m a los 1,45m. En las jornadas iniciales, el alavés Kevin Gonzalez se impuso en la prueba de 1,35m con su caballo Pepeur des Espinets, mientras que Marc Boncompte ganó la prueba de 1,30m con Annel Z Champion y Jaime Gabarrón venció en 1,20m con Cira.

La final se disputó el domingo 4 de agosto, y de los cuatro caballos que se clasificaron para disputarla, tres fueron montados por Gonzalo Busca. Finalmente, el donostiarra se impuso con Sambuca de Lurberri. El segundo puesto lo ocupó Marc Boncompte con Annel Z Champion, todos ellos sobre saltos de 1,45m.

Cabe destacar que en Mungia se realizó por primera vez una prueba de equitación de estas características tanto en castellano como en euskera, convirtiendo a nuestro municipio en pionero en el uso de la lengua natural del territorio en este tipo de acontecimientos.

# 5 nuevos agentes para la Policía Municipal

Urriaren 1etik gora bost udaltzain barri daukaz herriak.

Tal y como anunciábamos en publicaciones anteriores, en el 2011 se aprobaron las bases para cubrir cinco puestos vacantes en la plantilla de la Policía Municipal de Mungia.

El proceso de selección culminó con un año de prácticas en el puesto, que finalizó el pasado 28 de julio. Una vez obtenidas las evaluaciones favorables de los cinco agentes en prácticas, desde estas líneas informamos de que han sido nombrados como funcionarios de carrera y que este 1 de octubre, tomaron posesión de su nuevo puesto, pasando a integrar uno de los servicios municipales más cercanos a los mungiarras.



# 2014Ko jai-eguna San Pedrotxu izango da

El día festivo local para 2014 será el día 30 de junio ya que los días de San Pedro y San Antontxu caen en fin de semana.

Udalbatzak datorren urteko herriko jai-eguna bagilaren 30a izango dala erabagi dau. Izan bere, 2014ko San Pedro eguna domekea izango danez eta San Antontxu eguna, barriz, zapatua, beste egun bat aukeratu behar izan da Mungian urteko herriko jai-eguna ezartzeko. Holan, eta Bizkaiko jai-eguna oraindik ezarri barik dagoala ahaztu barik, ondokoak dira datorren urterako langileek urte osoan zehar hartzeko eukiko dabezan jai-egunak: Urtarrilak 1, Urtebarri eguna; urtarrilak 6, Agerkundearen edo Errege-Eguna; aprilak 17, Eguen Guren; aprilak 18, Bariku Guren; aprilak 21, Pazko Berbizkunde astelehena; maiatzak 1, Langileen eguna; abuztuak 15, Ama Birjinaren Jasokundea; urriak 25, Euskadiko eguna; zemendiak 1, Domu Santu eguna; abenduak 6, Espainiako Konstituzino eguna; abenduak 8, Sortzez Garbiaren eguna eta abenduak 25, Natibidade eguna.

# Convenio de colaboración con la Asamblea de Parados de Uribe-butroi

Langabetuen Batzordea astero batzen da Olalden, eta Mungialdeko Gizarte Zerbitzuetako Partzuergoak bere laguntza eta alkarlana eskaintzen deutso.

El 13 de diciembre de 2012 se procedió a la firma del convenio entre el Ayuntamiento y la Asociación de parados de Uribe – Butroi con el objetivo, entre otros, en materia de empleo, de promover la inserción laboral de las personas desempleadas de Mungia.

Con este fin se ha establecido un calendario de reuniones quincenales entre representantes de la Asociación y Mungialdeko Behargintza en donde se intercambia información sobre aspectos socio-laborales tales como necesidades formativas, factores que obstaculizan la inserción laboral, etc.

El objetivo final del Ayuntamiento es la inserción laboral plena pero conscientes de que hasta llegar al final de ese camino hay personas que están atravesando una delicada situación, el 18 de septiembre el Consorcio de Servicios Sociales de Mungialdea se reunió con la Asamblea para dar a conocer las Ayudas Sociales existentes y la forma de acceder a ellas.

Por otro lado, y con el fin de que la Asociación pueda desarrollar su labor, el Ayuntamiento ha cedido el uso de un local en Olalde así como su apoyo en la difusión sobre su actividad entre las personas desempleadas.

La Asociación se reúne todos los miércoles a las 19:00 en Olalde para explicar a los asociados la situación actualizada de las ofertas de empleo existentes en el municipio, con el compromiso de que sus asociados mantengan una actitud activa en la mejora de su empleabilidad e informar a todo aquel que este interesado en conocer el funcionamiento de la Asamblea.

La Asociación de Parados esta integrada por personas desempleadas de Mungia y comarca, con profesiones muy diversas destacando aquellas que están ligadas a la construcción.

# Mungialdean ikurriñaren alde

La iniciativa popular en favor de la ikurriña responde a la imposición de poner la bandera española en los balcones de muchos ayuntamientos de Mungialdea.



Joan dan urriaren 13an, domekea, Mungiako eta alboerritetako hainbat eta hainbat lagun batu ziran Jatako puntan, ikurriñaren aldeko ibilaldia egin ostean. Ekimen hori aldarrikapen bat da, hain zuzen bere, hainbat herritako udaletxeetako balkoietan Espainiako banderea agirian iminteko egindako inposaketaren kontrakoa.

Herri desbardinetatik urten eta 150 lagun baino gehiago batu ziran Jatako puntan eta eguerdiko 12:00etan Ikurriñea ipini zan bertan.

Horren ostean, Zumetzagara bajatu eta 13:00etan, San Migel baselizaren aurrean, manifestu bat irakurri zan bertaratu ziran guztien izenean. Idatzi horretan, inposaketea barriro salatu eta bizi dogun egoereari jarrera eraikitzaileaz erantzuteko beharra azpimarratu zan, baita erabagiteko eskubidearen aldeko apustua egin bere. Ganera, aurrerantzean norabide horretan lan egiten jarraitzeko konpromisoa hartu eben.



## STAFF

**ARGITARATZAILEA:**
MUNGIAKO UDALA:
Elorduigoitia, 4
48100 Mungia <Bizkaia>
Tel. 94 674 12 12
harrera@mungia.org
www.mungia.org

**ALE KOPURUA:** 7.000

**LEGE GORDAILUA:** BI-2224/2012